



ARGIA



GOIZALDI DANTZA TALDEA 75 urte euskal kultura plazaratzen

26-31. orriak

2.823 | 2023 / 05 / 07 | 4,00 €



**Lurraren
Altxamenduak
sarea, Frantziako
Estatuaren jomuga**

12 | INGURUMENA



**Lehen
harreman
korapilatsuak
ginekologoarekin**

32 | OSASUNA



**Eskuin mutur
sionista barrutik
ezagutu duen
kazetaria**

36 | GILAD SADE

egonarria

Lurrari entzuten dion saioa

3. saioaren gaia:

Basoa

**Markel Arriolabengoa eta
Iñaki Etxebeste** Errez
kooperatibako kidearen eskutik

Bestalde, **Igeldoko Esnearen**
esperientzia ezagutuko dugu

**Mattin Jauregi eta
Eli Pagolak aurkeztuta**

Asteazkenero bideo-podcasta
ARGIA-n, Bizi Baratzean eta
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

[BIZI BARATZEA.eus](https://bizi-baratzea.eus)



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: OKIEM FOTOGRAFA / GOIZALDI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | MIKEL BASABE
- 23 | EVA PEREZ-PONS
- 24 | AITOR MONTES

Finkoak

- 43 | BIZI BARATZEA
- 46 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
LAURA GURBINDO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



16 | ESTI BLANCO- ELORRIETA

Hizkuntzaren neurobiologia ikertzen du Harvardeko unibertsitatean. Danele Sarriugartek elkarrizketatu du, eta hitzun elebidunez ditugun hainbat uste oker argitu ditu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Borroka-bide eraginkorrak asmatzen dabilen 'Lurraren Altxamenduak' hats gabe utzi nahi luke Frantziako Estatuak

Jenofa Berhokoirigoin

26 | KULTURA | GOIZALDI TALDEA

75 urte kaleak dantzan jartzen

Josu Narbarte

32 | OSASUNA

Ginekologoarengana joateko hamaika traba

Olaia L. Garaialde

36 | INAZIOARTEA | GILAD SADE

"Kachekoek uste dute palestinarrak erdi gizakiak direla eta judutarrak gizaki gorena, ni bi erdiak nintzen"

Maria Ortega

40 | KIROLA | JOSEBA ELGEZABAL

"Masajistak baino gehiago, morroiak gara askotan"

Eñaut Agirrebengoa

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuaztat eta argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Itxurakeria etiketan hasten da

10 urte bete ditu historia modernoko lan hilketa handienetako batek. Bangladeshko bost mila langilek arropa-fabrika batean lan egitera behartu zituzten egoera penagarriak zegoen eraikin batean. Eta hala, apirilaren 24an Rana Plazako eraikin hori bertan behera erori eta 1.132 langile hil zituzten eta 2.500 baino gehiago zauritu, gehienak emakumeak. 10 urteren ondoren, fast fashion industriak pertsonak eta ingurumena nahieran ustiatzen jarraitzen du "berde" eta "justua" gisako etiketetan aterpetuta. Kontsumitzaileekin jolastan dira, jasagarritasuna sustatzen dutela diote, arropa kantitate handiagoak sortu, substantzia toxikoak erabili eta lan-baldintza eskasak eskaini bitartean, urteurrenaren harira Greenpeacek argitaratu duen txostenean salatu dutenez.

STOP
a la industria
texKILL

**Rana Plaza gogoan.
Akordioa sinatu!**



EAEko Hezkuntza Legeak atzerako kontaketa hasi du

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

EAeko Hezkuntza Lege aurreproiektuaren zirriborrotik beste bizpahiru zirriborro berridatzi –eta negoziatu– ostean, Gobernu Kontseiluak lege proiektua onartu zuen apirilaren 25ean. Oraindik bidea dago aurretik: ziurrenik udal eta foru hauteskunde ondoen iritsiko da lege proiektua Eusko Legebiltzarrera, eta alderdi batzuek eta besteek izan ditzaketen zuzenketa faseari ekingo zaio, behin betiko legea onartu arte.

Jaurlaritzak iaz aurkezturiko aurreproiektu zirriborroak 34 eragileren ekarpen eta alegazioak jaso zituen, eta jakin-mina zegoen, zein aldaketa jasoko ote zituen lege proiektuak. Bada, sorpresa gutxi; honakoak dira aldaketa nagusiak eta mantendu diren puntuak:

HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOA

Legearen (eta EAJ, PSE, EH Bildu eta IU-Elkarrekin Podemosek sinaturiko Hezkuntza Akordioaren) zutabe da zerbitzu publikoaren kontzeptua: sare publiko nahiz itunpeko, betebeharrak batzuei erantzuten dien ikastetxe orok %100eko finantzazio publikoa jasoko du. Jaurlaritzak landu zuen aurreproiektuan, baina, betebeharrak horien berri apenas zegoen, eta horixe kritikatu zuen ahots ugari. Oraingo honetan, lege proiektuak zerbitzu publikoaren parte izateko bete beharreko printzipioak zerrendatzen ditu: “Diskriminaziorik eza; gardentasuna; irabazi-asmorik eza; ikasle

zaugarriari eta ikasleen aniztasunari arreta ematea; sexu- eta genero-askatasuna eta laiktasuna bermatzea” eta abar.

Badirudi progresiboki bete beharko dituztela ikastetxeek printzipio horiek. Betebeharrak horiek batzuek eta besteek nola ulertzen dituzten, zein irizpideren arabera eta nola neurtuko diren, eta beteazteko borondate politikoa zenbatekoa izango den, ikusteko dago.

SEGREGAZIOA

Ikasleen segregazioari aurre egiteko aurreproiektuak neurri gutxi jasotzen zuela ere kritika-iturri izan zen. Dagoeneko datoren ikasturterako matrikulazio prozesuan ikusi ditugun (eta hautsak harrotu dituzten) hainbat neurri jaso ditu testu berriak: esaterako, eskolek plaza kopuru jakin bat gordetzea ikasle zaugarrienentzako, eta zaugarritasun-indizearen inguruko argibideak.

Eskolatzeko orekatuari begira, zirriborroan ez zegoen esaldi esanguratsu bat gehitu dute: “Gaineskaintza eta azpieskaintza saihestuko dira”.

ERLIJIOA ETA LAIKOTASUNA

Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoko ikastetxe orok (alegia, %100ean diru publiko hornitzeko) bete beharreko printzipioetako bat da ikastetxeak laikoa izan behar duela, baina jakitun gara EAEn Kristau Eskolak pisu handia duela, eta hasierako zirriborroan, bereziki bi konturak ematen zuten arreta: batetik, eskatzen zen “laiktasunean oinarritutako hezkuntza-eredua garatzea, itunpeko ikastetxe pribatuaren berezko izaera errespetatuz”, nahiko esaldi nahasgarri eta itxuraz behintzat kontraesankor batean. Orain, bigarren zati hori (“itunpeko ikastetxe pribatuaren berezko izaera errespetatuz”) desagertu egin da, baina berriro ere beste puntu batean jasotzen da, “beren izaera propioari uko egin gabe” jardungo direla ikastetxeak. Laiktasuna eta doktrinamendu eza bermatu behar dute ikastetxeek; aipamen hutsa da eta ez da sakontzen laiktasun horren atzean zer ulertzen den.

Bestetik, Hezkuntza Akordioan muga jarri zitzaion Erlijio ikasgaiari: Espainiako legeak Erlijio ikasgaia eskaintzera behartzen duela-eta, adostu zuten Espainiak ezartzen duen gutxiengo ordu kopurua izatea EAEn eskaini daitekeen gehienezko ordu kopurua. Bada, hasierako testuan ez zitzaion mugarik jartzen Erlijio ikasgaiari. Bigarren honetan bai, berreskuratu da Akordioan adosturikoa.

Bestetik, Hezkuntza Akordioan muga jarri zitzaion Erlijio ikasgaiari: Espainiako legeak Erlijio ikasgaia eskaintzera behartzen duela-eta, adostu zuten Espainiak ezartzen duen gutxiengo ordu kopurua izatea EAEn eskaini daitekeen gehienezko ordu kopurua. Bada, hasierako testuan ez zitzaion mugarik jartzen Erlijio ikasgaiari. Bigarren honetan bai, berreskuratu da Akordioan adosturikoa.

EUSKALDUNTZEA

Espero zen bezala, eta nahiz eta eragile ugari aurkeztutako zuzenketa eta alegazioetan eskatu egungo A, B eta D ereduak gaitzitu eta murgiltze eredu orokortua ezartzeko ikastetxe guztietan, ez da hala korik jaso lege proiektuan. Bai Akordioan bai aurreproiektuan adierazitako ereduak mantentzen da: “Euskara ardatz duen sistema eleaniztuna”. Euskaraz B2 maila lortuta bukatu behar dute derrigorrezko hezkuntza ikasleek, eta horretarako ikastetxe bakoitzak erabakiko du bere hizkuntza proiektua, duen testuinguruaren arabera. Ikastetxeen hizkuntza proiektuak ebaluatze eta jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du administrazioak.

Ez da zehazten euskara izango denik irakas-hizkuntza bakarra, eta horrek ere kezka sortzen du, zenbat ikastordu izango diren euskaraz irakatsiko direnak eta zenbat beste hizkuntzaren batean. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Zer ospatua



UXUE APAOLAZA LARREA

Jende atsegina nuen aurrean irakurle klub guztietan. Ez aberatsak. Langile-klasekoak zirenaren kontzien-tziadunak, klase ertaina izan arren. Ziur, egunero-koan nahikoa buruhausterekin. Eta nik lau minutu baino ez nituen behar izan *kapitalismoa* esateko, apokalipsia iragartzeko. *Zenezesidade*. Ez zuten merezi.

Eta zuei ere zer. Beti haserretetik. Beti ezintasunen batetik. Eta orain ere, pentsatzen hasita, esango nuke, se-guru, ez dagoela ihesbiderik. Ekonomian, ingurumenean, gerra kontuetan... Kontsumo gaitasuna eskubide bakar, miope ekologikoak, aberatsak, independizatuta, beren kutsatzeko gaitasun infinituaz, urez gainezka. Gerra kontuetan ere, ez al gara gerra bezperako ukrainiar klase ertain bat gehiago. Eraikitako txikia egun batetik bestera galtzeko zorian.

Ez duzue merezi. Nik ere ez. Batez ere, irtenbiderik ikusten ez badugu. Ikusten dugun irtenbide bakarrak eskatuko lukeen indarkeria dosirik ere lortu ezin badu-gu. Indarkeria une horretan gure taldekoek bortxatuko gintuzketelako.

Baina merezi dugu tragediaren bezperan eguzki-be-rotan pintxo bat jatea. Ez dakit patata-tortilla bat *jamon-yorktagaztakin*, mosto batekin (Martiniak ez daukagun egun osoa eskatzen duenez). Agian, Arrularen liburuko lehen ipuina dastatuz. Ipuina bukatu. Ingurura begiratu. Hasperen egin. Tragediari aurre egiteko heliozko puxika bihurtu. Errekor badaezpada ere. Baina arin. Zerbait os-patu. Ospatzeko zerbait aurkitu. Beti. ●

EZ HANKA EZ BURU

ESATEN DUTENEZ,
HAUTESKUNDE GARAIAN,
POLITIKO BATEK
EUSKAL HERRI OSOA
ZEHARKA DEZAKE
MEMORIAGUNETIK
MEMORIAGUNERA
SALTO EGINEZ!



A D U R

Presoak

Espainiako Epaitegi Gorenak Galder Barbado eta Aitor Zelaiaren aurkako epaia berrikusi ostean espetxeratze agindua jaso zezaketela-eta, ANkerkeria Stop lelopean mobilizazioak egin zituzten Gasteizen, Amurrión eta Agurainen, bi gazte arabarrei babesa emateko.

Erraustegia

Plastic Energy enpresak Zumarragan hondakin plastikoen birziklatze kimikorako instalazioa jartzeko asmoa "kezka handiz" ikusi du Urretxu-Zumarraga Bizi! plataformak. Azpimarratu du pirolisiak osasunarentzat kaltegarriak diren kutsatzaile kimikoak askatzen dituela.

Literatura

Arnaut Oihenarten poema berriak aurkitu dituzte. Gidor Bilbao EHUKo ikerlariak Grenobleko liburutegiko ale batean *Cobla Berria* liburuaren ale bat topatu du, eta Baionako liburutegikoak baino lau orri gehiago ditu. Bertan daude orain arte ezagutzen ez genituen ahapaldi eta poema berriak.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Hondarribiko baserria



ULA IRURETAGOIENA

Baserri ingurunea dramen gertakari izan da berrietan, eskopeta eta hondeatzailea bitartekari. Notizietako baten arabera, Moskenea zuen izena, eta akabatua izan da. Bere haragia harri eta egurrezkoa bazen ere, bere desagerpenak inpaktua sortu eta tristura ekarri du. Hondarribiko lurretan luze bizi izandakoa zen, XVI. mendetik belaualdiz belaualdiki denborari eutsi dio, eta denboraren ondorioak ikusgai zituen. Zaharra zen, zahartuta zegoen, hor bere xarma eta kondena. Berreraikitze baimena jaso, eta eraitsi egin dute. Bizirauteko pilula eskatu eta antrax eman diote. Moskoneak haginkada bat utzi du lurraldean.

Ekintza bortitzaren atzean dauden haragizko egileen azpijokoa nolakoa izango ote zen. Jabe eta eraikitzailearen arteko ausardi eta lotsagabekeriak zer-nolako argudioak izango zituen bata besteari planaren zilegitasunaz konbentzitzerako garaian. Eraikitzaileak, eraispinarekin mozkin gehiago eta lana errazagoa izango zelakoan, "lasai, ez da inor enteraturko" lasaigarria sinetsaraziko zion jabeari. Edo jabeak luzatuko zion eraikitzaileari, "lasai, ezagutzen ditut horrelako kasuak eta ezer gutxi gertatu da", edo inpunitatearen eta harropuzkeriaren ebidentzia izan zitekeen: "Lasai, lagunak ditut goiko estamentuetan eta babestuko naute".

Nola iritsi daiteke norbait horrelako arriskua hartzera eskuhartze-lanek suposatzen duten diru-inbestitze handiarekin. Jabeak amets handia izan behar du Moskonearen ordezk berritu bat desiatzeko, eta Moskonearekiko inolako atxikipenik ez izan aldi berean.

Arkitektura-ondare batean bizi direnei askotan entzun izan diet kexu, "ezin dut ezer egin nire etxean" esanez. Baliteke ondareen mantenurako dirulaguntza eskasa gertatzea eta zenbait arau murriztaileegiak izatea, baina ondare eraikin batean bizikide izatea ohore bat da eta maitasun harreman bat sortu beharko litzateke bizitokiarekiko, berezko izaera ulertu eta zaintzeko adina maitasun. ●

ANALISIA



ECUADOR ETXEA

Sexu askatasunaren legea?

LEIRE ARTOLA ARIN

Atzean geratu zen feministek "ezet ezetz da" aldarria oihukatzen zuteneko aldia. Urteak dira "soilik baietz da baietz" defendatzen hasi ginelarik, sexu erasoaren *errua* emakumeon bizkar erori ez zedin. 2016ko sanferminetako talde bortxaketaren erantzuna mugarri izan zen horretan, eta kaleetako borroka instituzioetara iritsi zen; berandu, eta hautsak harrotzera, noski. *Soilik baietz da baietz legea* izan da Espainiako Gobernu koalizioan, PSOE eta Unidas Podemosen artean, tentsio handien eragin duen auzietako bat. Urrian abiarazi zuten Sexu Askatasuna Erabat Bermatzeko Espainiako Lege Organikoa, onespeneraren ideia erdigunean jartzeko adostu zutena: sexu abusua eta sexu erasoak delituak bateratu zituzten, besteak beste, saihesteko emakumeek frogatu behar izatea erresistentzia jarri zutela erasoaren unean. Birbiktimizazioa eta errua alboratu nahi izan zituzten.

Baina legeak "akatsak" omen zituen: zenbait epailek legea baliatu zuten sexu erasoak egin zituzten presoei kondenak txikitzeko. Gizartea asaldatu zen, eta alarma soziala pizteko erabili zuten hainbat hedabide eta alderdik, bortxatzaileak kalera ateratzen ari zirela esanez, eta emakumei beldurra eta babesgabatasuna eraginez. Bada, sei hilabeteren ondoren, legearen erreforma onartu dute Senatuan, apirilaren 26an, "akatsak konponduta". Apirilaren 20an pasatu zuen Kongresuko langa, baina desadostasun nabarmenekin: PSOEak aldebakarrez aurkeztutako proposamenak PPren babesa izan zuelako egin zuen aurrera erreformak. Aldeko 233 boto -EAJ barne-, aurkako 59 -EH Bildu eta Unidas Podemos tartean- eta 4 abstentzio jaso zituen. Beraz, eskuinak nahi izan duelako onartu da "sexu askatasuna erabat bermatzea" helburu duen lege erreforma. Hain zuzen, Irene Montero Berdintasun ministroak PSOEri kritikatu dio onespenera "antzerkitzat" dutenekin negoziatzea, eta euren proposamenei bideak ixtea. Podemosek eta EH Bilduk, besteak beste, eskatu dute onespenera "ez ukitzeko", eta indarkeria erdigunean jarri ordez, larrigarritzat jotzeko. Eztabaidak alferrikakoak izan dira, ordea, eta PSOEak erabaki du akatsak bere kabuz "konpontzea".

Zein akats konpondu dute, bada? "Delitu larrienak zigor handiagoa" izango duela, Pilar Llop Justizia ministroak berretsi duenez. Alegia, zigor handiagoa izango dute indarkeria edota larderia egon dela frogatzen den kasuek; onespenera erdigunetik alboratu dute, eta horixe izan da feministek egin dieten kritika nagusia. Birbiktimizazioak indarrean segituko du. Zein mezu helarazten die horrek emakumei? Eraso delarik soilik erresistentzia jarri bada; berriro ere atzera "ezet ezetz da" lelora. Berriro ere atzera, erasoaren karga andreen bizkar jartzera. Eta sistema punitibistan kartzela zigorren urteak gora edo behera egin behar duten eztabaidatzen ari garen bitartean, gizonek jarraitzen dute patriarkatuaren izenean "sexu askatasuna" praktikatzeko, sexu erasoaren eta sexu harremanen arteko diferentzia ulertzeko "zailtasunekin". ●

34

zentral berriztagarri gehiago egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak: 17 parke eoliko eta beste 17 fotovoltiko. Denera 1.314 MWko potentzia izango lukete zentralek.

1.846 milioi

euro irabazi ditu BBVAk 2023ko lehen hiruhilekoan, iaz baino %40 gehiago. Iberdrolak ere 2022an baino %40 gehiago lortu du etekinetan, lehen hiruhilekoan: guztira 1.485 milioi euro.

28.533

euroko isuna ordaintzera kondenatu dute Superberriak, BMren frankizia, jazarpenagatik eta Bilboko Alde Zaharreko denda bateko langile baten osotasun fisiko eta moralerako eskubidea urratzeagatik

“Lan gaixotasun moduan aitortzen diren gaitzen zerrenda erabat zaharkituta dago”

AINHOA ETXAIDE

Ekonomia analisigilea.

EUSKADI IRRATIA (2023-04-28)



“URTEGIAK BETETZEN EZ BADIRA, UDAN GORRIAK IKUSIKO DITUGU”

PATXIKU IRISARRI

EHNEko idazkari nagusiak Nafarroako egoeraren berri eman du. Lehortek dagoeneko zenbait laborantza aldatu eta beste batzuk bertan behera uztea eragin du..

EUSKALERRIA IRRATIA (2023-04-24)

“Gizarteak ez gaitu subjektu ekonomiko gisa ikusten, irudi erromantiko eta bohemio samarra dauka gutaz”

GARBIÑE UBEDA

Lanartea, Euskararen langile profesionalen elkarte, Eusko Legebiltzarrean izan da, euskal sortzaileen egoera eta aldarrikapenak azaleratzen.

2023-04-26



TEKNOLOGIA

Espekulaziorako tartea



DIANA FRANCO

Espekulazio hitza kapitalismoarekin lotua da guztiz nire iruditegian. Hitz hori entzuten dudanean, burtsa, kriptotxanpon eta abarrekin espekulatzen duten pertsonengan pentsatzen dudanean, aitortu behar dizuet tripak nahasten zaizkidala. "Diruarekin" ondo espekulatzeko oso pertsona informatua izan behar zara, gizakion gizarteetan balio ekonomikoa duten ondasun eta zerbitzuen gorabeherak ezagutu eta dirua handik hona mugitu, etekinaren bila.

Baina askotan, jokabide hori ikusita, ni neu ere nolabait espekulatzailetzaila naizela ohartzen naiz. Hau da, teknologiei lotuta ni ere banabil gauzak nondik joango diren pentsatzen denbora guztian. Ez ditut gauzak zerotik irudikatzen, dagoen informazioa erabilia agertoki ezberdinen inguruan espekulatzen aritzen naiz. Beraz, nolabait, hitz horrekin harreman berriak josten hasi behar izan dut.

Espekulatzeko grina leku ugariatik pizten zait. Behin, autobusean nengoela, irratian Tecnaliako ikertzaile batek (ez dut izena gogoratzen) irratian honakoa esan zuen: "ChatGPT bezalako adimen artifizialek gaitasuna dute egitura duten hizkuntzak zerotik ikasteko, gutxieneko sarrera datuak badituzte, nahiz eta hizkuntza asmatua izan". Nire irudimena piztu egin zen, eta automatikoki honakoa espekulatzen hasi nintzen: eta adimen artifizialek animalien hizkuntza ulertzeko gaitasuna izango balute? Zer elkarrizketa mota izango genituzke animaliekin? Entzuteko prest egongo ginateke esateko dutena? Nola aldatuko luke horrek gure munduaren egituraketa?...

Ulertzen dut animalien hizkuntzak gorputz eta jokabideekin harreman handia duela, baina, espekulatzen jarrita, animaliek elkar ulertzen badute, zergatik ez lituzke ulertuko horretarako trebatua izan den adimen artifizial batek? Sentsore ezberdinekin harreman ezberdinen datuak jasoko lituzkeen adimen artifizial batek? Espekulaziorako tartea hartzeak horrelako emaitzak ere badakartza, eta azkenaldian, hitz honekin gустurago sentitzen hasia naiz. ●

NAZIOARTEA



RIVE

India munduko herrialderik populatuena da jada

AXIER LOPEZ

Txinak munduko herrialderik populatuena izateari utzi dio, gutxienez 70 urte baino gehiago hala izan ondoren, NBERen estimazio demografikoen arabera. NBE munduko populazioa erregistratzen hasi zenetik (1950etik) lehen aldiz, Indiak Txinaren lekua hartu du, ia 1.500 milioi biztanlerekin (1.425.775.850), NBERen proiektzioen arabera. Planetan bizi garen hiru pertsonatik bat Indian dago.

Txinako biztanleriaren beherakada jaiotza-tasa kontrolatzeko hamarkadetan ezarritako lege zorrotzen ondoren gertatu da. Horietan ezagunena eta polemikoa 1980ko hamarkadan "seme bakarraren" politika izan zen. Lege horrek isunak ezartzen zituen seme-alaba gehiago izateagatik, eta gizonezkoen hazkuntza eragin zuen, baita behartutako abortuak eta antzutzek ere. Politika murriztaile horrek genero-desoreka handia eragin du eta, hala, egun 32 milioi gizon gehiago dago, emakume kopuruarekin alderatuta. Biztanleria zahartuari egin behar dio aurre Txinak orain, eta horrek ondorio ekonomiko larriak izan ditzake. Batez beste, 1,2 seme-alaba izaten jarraitzen du herrialdeak, eta datozen bi hamarkadetan biztanleria ia %10 murriztuko dela aurreikusten da. NBERen proiektzio horien arabera, Txinako biztanleria 1.000 milioitik behera eror liteke mende honen amaiera baino lehen.

India txanponaren beste aldea da. Azken 70 urteetan, Indiako biztanleria 1.000 milioi baino gehiago handitu da, eta datozen hamarkadetan ere gora egingo duela aurreikusten da, baina ez hain nabarmen. 2064an topera iritsiko litzateke: 1.700 milioi pertsona. Datorren hamarkadarako aurreikusitako hazkunde demografikoaren herenak bi estatutan izango du oinarri nagusiki: Bihar eta Uttar Pradesh, herrialdearen iparraldean. Planetako gunerik emankorrenetako bat izanik ere, Indiako landa eremu hori zonalderik pobretuena da. Hegoalde industrializatuan, biztanleria-tasa egonkortu egin da, eta zenbait lekutan jaisten ere hasi da. Adibidez, 2025ean, Kerala estatuko bost biztanletik batek 60 urte baino gehiago izango ditu. Dena kalkuluak dira, Indiako Gobernuak datu demografikoak eguneratu gabe jarraitzen baitu. Erroldaren prozesua oztopatzea leporatu diote Narendra Modi lehen ministroari, "politikoki txarrak" izan daitezkeen datuak ezkatatzeko.

Indiako batez besteko adina 29 urtekoa baino ez da. Hain populazio gaztea izatea oso baliagarria izan zen Txinan: bere goraldi ekonomikoa sustatzen lagundu zuen, egun Indian ere gertatzen ari den antzeko prozesua. Jakina, sistema kapitalistan eta kasten sisteman sakonduta, are gehiago indartu ditu Indiako langile klase handiaren esplotazioa eta gizartearen diren desberdintasun sozial, ekonomiko eta politikoak. ●

Parisko oilategietako arrautzak ez jatea gomendatu dute agintariek

ZERO ZABOR

Ile-de-France (Paris hiriburua eta inguruko metropoli osoa) eskualdeko Osasun Agintaritzak herritarrei gomendatu die beren etxeetako oilategi txikietako arrautzarik ez jatea: agente publikoak enkargatutako azterketa batek berretsi du aurretik ToxicoWatch fundazioak beste ikerlan batean aurkitutakoa, hots, oilategi horietako arrautzek daramatzaten dioxinek 50 bider gainditzen dituztela legeak ezarritako mugak.


Parisko agintariek, antza, Gipuzkoako agintariek baino serioago hartu dituzte ToxicoWatch fundazioak egindako oharrak eta bertako oilategietako arrautzak ikeritzeko agindu zuten iaz. Orain, prentsaren bidez gomendatu diete etxeetako oilategietako arrautzarik ez jateko. Ez behintzat gaia sakonago aztertu eta ondorio guztiak argitu bitartean.

COMMUNIQUÉ DE PRESSE?

Le Monde egunkariak interneteko bertsioan lehen orrian ezarri du albistea. Egunkariak gogorarazi duenez, "lehenbiziko alerta bat 2022ko otsailean eman zuen *Le Monde*ek, plazaratuz Ivry-ParisXIII-ko erraustegia- inguruko oilategietako arrautzetan dioxina metaketa handiak aurkitu zirela. Ikerketaren egilea ToxicoWatch fundazioa zen, erraustegien kutsaduren analisi toxikologoetan berezitua dagoena, Collectif 3R elkarteak eskatuta".

GIPUZKOAN ENTZUNGOR

ToxicoWatchek antzeko miaketak egin ditu Parisez gain Txekiako, Madrilgo eta Gipuzkoako erraustegien inguruetan, eta denendatuak elkarrekin erkatuz plazaratu zuen txosten bat. Bitxia da alderatzea fundazio ospetsu horren lanari zein erantzun ezberdina eman zaien batean eta bestean: Gipuzkoan prentsa nagusiak ezikusia egin zion azterlanari eta agintariek emandako erantzun bakarra mespretxu eta mehatxuzkoa izan zen, lana enkargatu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimendua eta ToxicoWatch bera herritarrek beldurtzeko ahaleginean ari zirela publikatu baitzuten.



Ivry-sur-Seineko erraustegia, Paris metropolitanoak dauzkan hiru handietako bat da, Europako handiena. Argazkia: Actu Environnement.

Parisen, aldiz, agintariek erabaki dute hariari gutxienez pittin bat gehiago tira egitea. Bere aginduz burututako ikerlan berrian aztertu dituzte 25 oilategitako arrautzak, denak ere oilategi txikiak eta beren jabeen baimenarekin. Hamalau oilategi daude Parisko hiru erraustegi nagusien inguruetan, hau da, Ivry-sur-Seine, Issy-les-Moulineaux eta Saint-Ouenen; beste hamaikak erraustegien ingurutik pittin bat urrunxeago, hiru kilometroko eremutik kanpo. Eta oilategi hauen azterketa berriak berretsi duenez ToxicoWatchek aurkitutakoa, Parisko oilategietako arrautzarik ("oraingoz") ez jateko gomendioa egin die herritarrei.

Jakin behar da dioxinak abereek -gizakiak barne- beren koipetan metatzen dituztela, eta herritarrek auto-kontsumorako etxe ondoan libre hazitako oiloen kasuan oilategi inguruetan jandako hosto eta xomorroek airetik bezala uretatik edo lurretik bildutako dioxinak nabarmen ageri direla beren arrautzetan.

ZAMA HERRITARREN BIZKAR

Hondakinen erraustetari eta horiek eragindako kutsadurari batere arretarik jarri diona azkar jabetuko da gaiak oraindik soka luzea ekarriko duela. Hasteko, ARS

osasun agentziakoak oso tentuz ibili beharra daukate, jokoan dagoelako hondakinen errausketa, hau da, hondakinentzako us-tezko soluzio definitiboa izan behar zuen kudeaketa osoa... eta beren negozioa horretan oinarritzen duen industria indartsua. Horregatik, ARSk esku batekin dio bere ikerketa berrian dioxinak ageri direla erraustegitik hiru kilometro arteko eremuan eta urrunago ere bai. Alegia, dioxinak oso zabalduta daudela eta zaila dela zehazki halako edo bestelako iturri zehatzi lotzea. Eta beste eskuarekin zehazten du etxeko oiloen arrautzak ez jatea gomendatzen diela Ile-de-Franceko guztiei, baina bereziki Parisen inguru hurbilenekoei... erraustegitik gertuen daudenei.

ARS osasun agentziak herritarrei oroitara zi die nola sortzen diren dioxinak eta furanoak: "Hondakinen erreketak eta zenbait industria-jarduerak eragiten dituzten subproduktuak dira. Beraz, dioxinak eta furanoak ingurumenean egotea nahitaez lotuta dago erraustegien eta zenbait industriaren iraganeko edo gaurko isuriekin".

Tamalez, ARSko agintariei bururatu zaien gauza bakarra izan da autokontsumorako arrautzarik ez jateko gomendatzea, baina hitz bakar bat ere ez erraustegiak geldiarazteaz. ●

BORROKA-BIDE ERAGINKORRAK ASMATZEN DABILEN “LURRAREN ALTAMENDUAK” HATS GABE UTZI NAHI LUKE FRANTZIAKO ESTATUAK

Martxoaren 25ean izandako gas negargarri eta granada erauntsia gogoan atxikiko dute Sainte-Solineko pentzeetan baturiko 30.000 ekologistek: bi orenez 5.000 granada eta 200 kolpatu –horietan 40 larriki, eta bizia eta heriotzaren artean bi–. Laborantza industrialaren alde eta ingurumenaren kaltetara eraikitzeak duten uraska erraldoi baten aurka bilduak ziren. Protestaren oinarrian dagoen Lurraren Altamenduak deitu mugimenduaz poliziak eraman ikerketa plazaratu berri du *Mediapart*-ek. “Abilezia”, “perfektuki jositako komunikazioa” ala “liluratzeko gaitasuna”... hots, loreak, besterik ez. Argi da: eraginkorra eta iraultzailea den mugimendu berri hori trabagarria zaio gobernuari. Hortik, Sainte-Solineko neurrigabeko errepresioa eta mugimendua desegiteko erabaki politikoa.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Lurraren Altamenduak [izeneko kolektiboak] sormenerako, antolaketarako, eragiteko eta mobilizatze duen gaitasunari esker, baita lekuko borrokei oihartzun nazionala eta mediatikoa emateko duen ahalmena dela eta, badirudi ekologiaren aldeko kontestazio erradikalaren eragile nagusi gisa kokatu dezakegula”. Pentsatu dezakegu lore horiek mugimendu hau gustuko duen batek luzaturikoak direla. Baina ez. Esaldi hori Frantziako Estatuaren Informazio Zerbitzuen barne mailako txosten batetik ateratakoa da.

Reporterre komunikabideak eskuratu ahal izan du poliziek eraman ikerketaren ondorioak biltzen dituen iazko azaroko dokumentu ofizial hori. Txosten horretatik ondorio argia atera daiteke: benetako mehatxutzat du Frantzia-

ko Estatuak bi urte besterik ez dituen kolektibo gazte hori. Mugimenduaren indar-guneen zerrenda luzea kausitu daiteke Poliziak osaturiko txostenean: “abilezia”, “adimena”, “perfektuki jositako komunikazioa”, “liluratzeko gaitasuna”, eta beste.

Duela urte eta erdi idatzitako txosten hori elementu garrantzitsua dugu martxoaren 25ean Saint-Soline herrixkan antolatu protestari emandako erantzun errepresibo bortitza analizatzeko. Egun horretan 30.000 lagun bertaratu ziren eremu horretan egitekoa duten *megabassine* edo uraska erraldoiaren aurka. Laborantza industrialaren mesedetara eta ekosistemaren kaltetara bideraturiko megaproiektu horien aurkako mugimendua garatuz doa azken urteetan Frantziako Estatuan, justuki Lurraren

Altamenduak, baita Confédération Paysanne laborarien sindikatuak eta Basine Non Merci (Uraskak, ez milesker) taldeek antolatuturik.

Baserri munduaren eta urbanoaren topaleku interesgarria izaten ari da uraska erraldoien zein bestelako makroproiektuen aurkako mugimendua –aitzineko asteburuan, adibidez, 8.000 lagun batu ziren A69 autopistaren aurka–. Hots, mugimenduak funtzionatzen du, pausoz pauso geroz eta jendetsuagoa bihurtzen ari da, eta horrelakorik ez du nahi Estatuak. Baina, berez, jende-masak ez du Estatu kezkatzen –erretreten kontra karrikan batu milioika herritarren parean daukan mespretxua dugu horren isla–. Txostenean irakurri dezakegunez, ondokoa zaio arriskutsua: “Lurraren Altamenduak-ek ‘armagabetze’



URBANOA ETA BASERRI MUNDUKOA

Lurraren Altxamenduak deitu mugimenduaren garaipenatarikoa da lurraren aldeko borrokan batzea urbanoa eta landa eremukoa. Gobernuak ez du hori gustuko eta kolektiboa desegiteko prozedura abiatu du. Argazkia: Les Soulevements de la Terre.

terminoarekin ederki lortu du eko-sabotajearen onarpena orain artean desobedientzia zibilean zirenen partetik. (...) Borroka ekologistaren baitako adar erradikalaren eta bide gogorragoen garapena lortu dute, Overtonen leihoa lekuz aldatuz: lehen aldietan erradikalegiak ziren ekintza batzuei ohiturik, ez dira gehiago hain bortitz ikusten". Sainte-Solinen poliziek bideraturiko indarkeriaren erabilpena "gehiegizkoa" izan zela salatu zuen bertan ikuskari gisa egondako Giza Eskubideen Ligak. Ofizialki "gerrako arma" gisa sailkatu-rikoak erabili zituzten 3.200 poliziek; bi orduz 5.000 granada jaurtikirik; berrehun bat manifestari kolpaturik –horietan 40 larriki eta bi koman sartuak-. Parean, ere 40 bat polizia zauritu ziren, baina bi aldeetako zauri eta indarkerien

"Lurraren Altxamenduak sareak ederki lortu du borroka ekologistaren baitako adar erradikalaren eta bide gogorren garapena"

Frantziako Poliziaren txostena

artean alde handia zela inork ez luke ukatuko.

Orduraz geroztik, *Mediapart* komunikabidea dabil biharamunen jarraipena egiten, bertan egon zirenen berri hartzen eta *Mégabassines, la guerre de l'eau* ("Uras-ka erraldoiak, uraren gerra") etiketaren pean bildutako artikulu multzoa kezka-garria da. Besteak beste, *Je pensais qu'il allait mourir entre mes mains* ("Pentsatzen nuen esku artean hilko zitzaidala") testigantza, iragan astean komatik ateratako baina oraindik biziaren eta heriotzaren artean segitzen duen Serge izeneko aktibistari laguntza bideratu zionarena.

Legearen arabera, airean zartatu beharreko granada buru gainean zartatu zitzaien, babesteko zeukan kaskoa mila puskatan xehatuz. Granada jaso eta tanpez erori zen, odola ateratzen zitzaiola

sudur, belarri eta ahotik eta begiak goruntza itzulita zituela. Kontatzen du nola zebiltzan granada eta gas negargarri uhararren erdian, sokorria bideratu nahian baina ezinean –ondoko egunetan argituko zen, telefono grabaketa batzuei esker, bertara ez etortzeko manua zutela sokorriek eta suhiltzaileek–. *Reporterre* komunikabidea ere ibili da testigantzak biltzen, eta *Les traumatisés de Sainte-Soline* ("Sainte-Solineko traumatizatuak") artikuluan zehazten du egunaren biharamunetan "30-50" dei jaso zituztela antolatzaileek "estuasun psikologiko urgenteen harira". Orduz geroztik, manifestari anitzek dituzte *flashback*-ak, estres post-traumatikoak, bapateko negarraldiak, eta bestelako gaizki izateak.

Ondokoa irakurri dezakegu Lurraren Altxamenduak-ek protestaren biharamunetan plazaraturiko agirian: "Gas negargarriak, granadak, blindatuak eta bestelako armategi militarrek espero genituen, baina ez genuen horrelako erauntsirik espero. (...) Rémi Fraissen heriotza gogoan ukan arren [2014an zendu zen, Frantzia hegoaldeko Sivers urtegiaren aurka egindako manifestazioan granada bat jasota], hein horretako hiltzeko nahikariari aurre egiteko ez ginen prestatuak. Ozka berri bat gainditu dute". Autokritika eta analisi politikoa juntatzen dituen idatzi mami-tsua da *A ceux et celles qui ont marché à Sainte-Soline* ("Sainte-Solineko martxan egondakoei") idatzia.

ARMA BERRIA: PRODUKTU IKUSEZIN BATEZ MARKATZEA

Granada eta gas negargarrien artean itota, inork ez zekien arma berri bat esperimintatzen zebilela Polizia: produktu ikusezin batez osaturiko kanikak igortzen dituen EMF100 fusila. Ikusezin hori, alta, poliziek ikus dezakete laser-izpiekin.

Harriduraz hartu zuen poliziaren jarrrera *Le Monde* edota *Radio France* ko-



SAINTE-SOLINEKO MANIFESTAZIOAN

jaso errepresioaren irudi bat. Argazkia: Les Soulevements de la terre.

Sainte-Solinen inork ez zekien Poliziak arma berri bat esperimintatzen zuela: produktu ikusezin batez osaturiko kanikak dituen EMF100 fusila

munikabideentzat dabilen Clément B. kazetari independenteak Saint-Solinetik –lanetik– etxeratzean: kontrol batean gelditu, paperak galdetu, "substantzia kriminalistikoan" behaketa eginen ziotenaren abisua jaso, UV lanpara batekin jantzien gainetik joan-jinak jasan, eta bapatean polizietako baten poza, margo baten marka agertu zitzaionelako esku gainean. "Harroturik ziren, 'positiboa da!' zioen batek", kontatzen du kazetariak. 28 ordu pasa zituen polizia-etxean, galdaturik, UV lanparari esker bakarrik ikusi daitekeen marka horrek frogatzen zuelako bertan egon zela.

MUGIMENDUA DESEGITEKO BIDEA HARTU DU GOBERNUAK

Mugimendua desegiteko xedea plazaratu zuen Barne ministro Gerard Darmaninek Saint-Solineko manifestazioaren ondoko egunetan, "ekoterroristatza" joz manifestariak. Baina badirudi abisuak mugimendua indartu besterik ez duela egin: "Lurraren Altxamenduak mugimendua ezin daiteke desegin, anitza delako eta bizirik dagoelako. Mugimendu bat ezin daiteke desegin, ezin daiteke matxina-da bat desegin", izan zen kolektiboaren erantzuna eta orduz geroztik alde guzietatik dituzte elkartasun mezuak –97.000 herritarrek izenpetu dute "Lurraren Altxamenduak gara" agiria eta dozenaka talde berri sartu dira sarera.

Ekintza eta bideak "berrasmatzeko" beharra azaldu dute Sainte-Soline biharamunetan idatzitako testuan, beti ere Poliziaren eta Estatuaren errepresioaren parean duten oinarritzko helburua oroitaz: "Orduz geroztik, ez da egun bat iragan urari buruzko aipamenik gabe, uraren eskasteari edo kutsatzeari buruzko erreportajerik gabe. Erronka erreala da, geroz eta gehiago gara gaiaz sentsible eta matxinadaren alde ere geroz eta gehiago gara. Uraren aldeko bataila hor dugu, hil ala bizikoa dugu borroka hori, segi dezagun, antolatuta gaitzen". ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

HONDARRIBIA

ELKARRIZKETA MUSIKATUA



LA BASU
ELENA CABALLERO



LA PULGA
ASKOA ETXEBARRIETA

2023ko maiatzaren 16an, Itsas Etxean.

Goizez bi saio: 10:00-11:00 eta 11:30-12:30.

DBH1 lehenik eta gero DBH2

Musikarien erakustaldia eta elkarrizketa

Esti Blanco-Elorrieta

TARTEKOARI ADI



AEB-ETAKO HEZKUNTZAN, JENDEAK USTE DU HOBE DELA ELEBAKARRA IZATEA ELEBIDUNA BAINO



Hizkuntzaz zein garunaz ari dela, Esti Blanco-Elorrieta ikertzailearen ikuspegian fluidotasunak leku nabarmena du. “Gizakiok kategorizatze konpulsio itzela daukagu, eta teoria oso modularrak egiten ditugu, denean”. Baina tarteko prozesuak daude, eta dena ez da A ala B. “Munduari begiratzeko modu bat da gauzak ikustea espektro batean, ikusi beharrean zuri ala beltz”. Beharbada lasaiago bizi gintezke horrela.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  IBAI ARRIETA

Hizkuntzaren neurobiologia lantzen duzu. Zer da?

Berez, gure garunak hizkuntza edo hizkuntzak zelan prozesatzen dituen ikeritzen dut. Kanpotik, pentsatzen da hizkuntza dela halako gauza monolitiko bat eta zuk berba egiten duzula edo ez duzula egiten, edo euskara daukazula parte batean eta gaztelera beste batean.

Baina ez da horrela.

Ez. Zuk berba bat aukeratu ahal izateko, 10 edo 100 prozesu desberdin pasatu behar dira zure garunean, neuronak era ezberdin batean konektatu behar dira, eta nik ikertzen dut neurona horien arteko harremanak zelakoak diren,

eta garuneko zer atal aktibatzen diren aditz baten inflexioa egiten duzunean edo gure subjuntibo magikoa erabiltzen dugunean [barreak].

Elebitasunari erreparatzen diozu zure ikerketetan.

Badago prozesu bat betidanik txunditu izan nauena, eta Euskal Herrian asko egiten duguna: hizkuntza bat baino gehiago nahasten ditugu esaldi berean, eta esaldi horiek gramatikalak dira bi hizkuntzetan.

Esan dit que joan egin dela.

Que eta -ela erlatibozko perpausen markak dira gaztelaniaz eta euskaraz hurre-

nez hurren, baina zuk hala ere biak sartzen dituzu, esaldia gramatikala izateko batean zein bestean. Sekulako gimnasia mentala da hori, eta Euskal Herrian barra-barra egiten dugu, eta erraz. Prozesu horrek txunditu egiten nau, eta batez ere txunditu izan nau ordura arteko teoria gehienek esaten zutelako, elebiduna baldin bazara, hizkuntza batean egiten duzunean berba, beste hizkuntza inhibitu egiten duzula nolabait, amatatu egiten duzula. Baina, kalean entzuten nuena entzunda, iruditzen zitzaidan hori ez zela posible, bestela guk ez genituzke halako perpausak sortuko momentuan-momentuan. Eta fenomeno horri tiraka hasi nintzen ikertzen.



Esti Blanco-Elorrieta

BILBO, 1990



Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta Hizkuntzaren Neurozientzia Kognitiboko Masterra, ondoren, Donostiako BCBL zentroan. Hizkuntzaren neurobiologia lantzen dabil harrezkeroztik, buru-belarri. New Yorkeko unibertsitatean egin zuen doktorego-tesia, elebidunen hizkuntza-al daketa praktikei buruzkoa, eta gaian ikertzen segitu du Harvardeko unibertsitatean. Geroari buruz duen ikuspegia eza-gutzeko, ikus ezazue *Ur Handitan* saioko *Ez bitarrak* atalean egin zioten elkarriketa.

Ordura arteko teoriek uste zuten elebidunei ahalegin bat eta kostu bat eskatzen ziela hizkuntzaz aldatzeak. Zergatik uste zen hori?

Uste hori esperimientuen testuingurutik zetorren, esperimientuetan jendea-ri kosta egiten zitzaiolako hizkuntzaz aldatzea. Demagun norbaitek ingelesez berba egiten hastera behartzen zaituela, bat-batean; hori gaitza da, baina zergatik? Hasieran uste zen al daketa bera zela gaitza, baina jendeak kalean zer erraz egiten duen ikusita, garbi neukan horrek ezin zuela azalpena izan.

Eta zer ondoriotara iritsi zara?

Ba egoera horretan hizkuntza aldatzea zaila dela nolabait ere murriztu egiten delako zer berba erabili ahal dituzun. Zuri norbaitek esaten badizu euskara hutsean berba egiteko, zure beste berba denak, beste hizkuntzetako berbak, zigortzen dira, ezin dituzu erabili, baina norbaitek esango balizu soilik a-gaz hasten diren berbak erabili behar dituzula, ba hori ere gaitza izango litzateke. Eta horrek ez dauka inongo zerikusirik hizkuntza aldatzearekin, zu zerbaitetara behartzearekin edo zure aukerak murriztearekin baizik.

Pentsatzen dut aurreko esperimentu haiek eta zeureak ez zirela berdinak izango.

Arlo horretako ikertzaileak elebakar-rrak ziren askotan, eta uste dut hori arazo bat izan dela. Esperimientuetan, adibidez, marrazki batzuk erakusten zituzten, eta esaten zuten: berdez ateratzen baldin bada euskaraz esan behar duzu objektuaren izena, eta gor-rriz ateratzen baldin bada, gaztelaniaz. Eta hor agertzen zen txandaka mahai bat gorritz, leiho bat berdez... Baina guk, munduan, hizkuntzak ez ditugu horrela aldatzen, *randomly* mahaia esango dut erdaraz eta gero armairua euskaraz. Nik esperimentu askoz ere naturalagoak egin ditut, jaiotzetik elebidunak izan diren pertsonekin.

Zer hizkuntza-konbinazio erabili dituzu?

Aniztasuna bilatzen saiatu naiz. Ingelesa-arabiera, ingelesa-txinera, ingelesa-gaztelania eta ingelesa-zeinu hizkuntza konbinazioak hartu ditut. Beste arlo guztietan bezala, ikuspuntu hegemoniko bat dago ikerkuntzan ere, eta ingelesa da dominantea, hori

argi dago; gainera, halako ikerketak Europan egin dira gehien, eta ingeles-nederlandera edo ingelesa-alemana nagusitu dira, eta Montrealen apur bat ingelesa-frantsesa. Baina gura baldin baduzu ondorio unibertsalak eskurtzea, jakitea orokorrean gure garunak zelan prozesatzen duen hizkuntza, ingelesa-frantsesa bakarrik aztertuta ez zara oso urrutira joango. Horregatik hizkuntza-bikote desberdinak erabili izan ditut. Ingelesaz ezin izan naiz libratu, AEBetan nagoelako, baina gero beste hizkuntza aldatzen joan naiz, eta emaitzak berdinak izan dira bikote batzuetan eta besteetan.

Argitu dugu elebidunok ahaleginik gabe aldatzen dugula hizkuntza esaldi berean (betiere behartzen edo mugatzen ez bagaituzte), baina, zergatik egiten dugu hori?

Hizkuntza batean berba egiten duzue- nean eta aukeratzen duzuean berba bat, horretarako zelako erraztasuna daukazu- n distribuzio probabilitistiko bat da berez. Zuk pentsa garunean daukazun egitura sintaktiko, berba, soinu eta abar denak daudela distri- buzio probabilitistiko batean, orduan gehien erabili edo jaso dituzunek edukiko dute aktibazio-maila handia- goa, eta gutxiago erabili dituzunek edo kontaktu gutxiago izan dituzu- nek maila txikiagoa. Berba egiten du- zun aldi bakoitzean zeozer aukeratu behar duzu distribuzio horretatik eta normalean joko duzu aktibazio-maila handi- goa dutenetara. Txikitatik ent- tzun izan badituzu euskara eta gazte- lera, inguruan jaso badituzu, horiek gutxi gorabehera parean egongo dira, eta gero frantsesa hizkuntza-eskolan hiru urte egin bazenituen, ez dauka konparaziorik zenbat ordu entzun duzun frantsesa eta zure bizi osoan zenbat ordu entzun dituzun euskara eta gaztelera.

Baina ez dira kontu estatikoak.

Ez. Adibidez nik Estatu Batuetan ez dut sekula egiten berba gaztelaniaz, egiten dut berba ingelesez edo bes- tela lagun euskaldunekin euskaraz, eta orain batzuetan gaztelaniaz egi- ten dudanean nire amak esaten dit mexikarra ematen dudala. Gehien ent- tzuten dudana gaztelera mexikarra da eta. Eskala horiek ez dira estatikoak. Hizkuntza jasotzen duzun bakoitzean, distribuzioa apurtxo bat aldatzen da.



Zertan ari zara orain?

Orain proiektu oso polit bat daukat, odol-isuriak izan dituen jendeagaz. Odol-isuriek, jendeak hizkuntza-gaitasuna galtzen du askotan, baina ez kategorikoki. Hau da, hizkuntza-gaitasunaren zati bat galtzen da: adibidez, zuk ahal duzu galdu aditzak sortzeko gaitasuna, baina ez izenak sortzekoa, edo objektu bizigabeak izendatzeko gaitasuna baina ez objektu bizidunak izendatzekoa. Isuri bat eduki eta gero, periodo kritiko bat dago errehabilitazioa egiteko, 14-16 aste inguru: denbora horretan berreskuratzen duzun hizkuntza-gaitasuna guztiz berreskuratuko duzu, eta

epe hori pasata berreskuratu ez duzuna, akabo. Elebidunen kasuan, bi bider gauza gehiago dauzkagu berreskuratzeko, eta denboraren presioa handiagoa da. Gaur egun ez dago inongo errehabilitazio-programa berezirik elebidunentzat. Ez hori bakarrik: zuk orain odol-isuri bat izango bazenu eta ospitalera joango bazina, ez dakigu galduko duzun gehiagoko euskara edo gaztelera, galduko dituzun biak berdin...

Zergatik ez da hori aztertzen?
Batetik, arrazoi sozioekonomikoak daude. Munduko elebidun gehienak –salbu eta hemen, Montrealen eta Afrikako leku batzuetan– orokorrean etorkinak izaten dira, eta etorkinek ia beti izaten dute maila sozioekonomiko baxuagoa; ez dira izaten Harvardeko ikerketetan parte hartzen dutenak. Hori izan da faktore handi bat.

Eta beste faktoreak?

Bigarrena, halako egoerak tratatu ahal izateko medikuak ere pazientearen bi hizkuntzak jakin behar lituzke, eta hori Euskal Herrian agian bai, baina AEBetan, non elebidun batek txinera eta ingelesa hitz egiten dituen, beste batek ingelesa eta bengalera... Ez dago denentzat.

Eta beste faktoreak?

Bigarrena, halako egoerak tratatu ahal izateko medikuak ere pazientearen bi hizkuntzak jakin behar lituzke, eta hori Euskal Herrian agian bai, baina AEBetan, non elebidun batek txinera eta ingelesa hitz egiten dituen, beste batek ingelesa eta bengalera... Ez dago denentzat.

Maiatzekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

Azkenik, gaitza izaten da pazientearengana iristea. Bat, haiek gura izan behar dute ikerketan parte hartzea, eta, bi, ospitaleak unibertsalki oso estresatuta daude, eta ez daukate denborarik zuk bost ordu pasatzeko pertsona horregaz: ea, esan aditza iraganean, orain aditza orainean, orain esan mugagabea...

Zuek nola ari zarete hori dena ikertzen?

Proiektua Texasen daukagu, Mexikoko muga, hango ospitale batez ari gara. The Valley izena dauka eremu horrek, eta familia asko-askotan gertatzen da familia erdia AEBetan bizi dela eta beste erdia Mexikon, baina da hemen-dik Hernanira joatea bezala [Donostiako Ibaeta auzoan gaudela]. Inguru horretan jende askok izaten ditu odol-isuriak, horretarako predisposizio genetikoak ere badutela. Orduan ikertzen gabiltza AEBetako odol-isuria ematen die-nean, batetik, ea hizkuntza nola galtzen duten, ea zein galtzen duten gehiago – elebidunak dira gehienak – eta, bestetik, zer desberdintasun dagoen bai genetikoki eta bai euren bizitzako aspektuetan mugaren bi aldeetan.

Irene Vallejo idazleari elkarrizketa egin nion orain gutxi, eta esaten zuen hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ikuspegiak zabal ditzakeela, hizkuntza bakoitzak badituelako bere mundu-ikuspegia eta aurreiritziak, eta bat baino gehiago ikasita, ikus daitekeelako aurreiritziak horixe direla, aurreiritzi.

Hizkuntzek bi erako ezaugarriak dituzte: batzuk idiosinkratikoak eta batzuk dau-denak nolabait errotuta benetako errealitatean. Adibidez, hizkuntzan moduren bat egon behar du zerbait iraganean gertatu dela edo etorkizunean gertatuko dela adierazteko, baina gero hizkuntza bakoitzak hori adierazteko bere modua dauka. Txinerako aditzek adibidez ez daukate iragana edo etorkizuna, aditzondo baten bidez adierazten dute denbora. Horiek dira hizkuntzen elementu semantikoak.

Beste batzuk dira ezaugarri idiosinkratikoak, adibidez gaztelaniak genero gramatikala edukitzea eta esatea mahaiari femenino eta ordenagailuari maskulino, ezertan oinarritu gabeko



“Gure hizkuntzak zelako egiturak daukan, pentsatu gurako genuena baino eragin handiagoa dauka mundua ikusteko dugun eran eta gure pentsatzeko eran”

genero-sistema bat da, eta beste hizkuntza batzuetako genero-sistemetan kontrako generoa erabiltzen dute objektu berdinentzat. Baina arrazoa daukazu, halako gauzek inplikazioak daukate. Gure hizkuntzak zelako egiturak daukan, pentsatu gurako genuena baino eragin handiagoa dauka mundua ikusteko dugun eran eta gure pentsatzeko eran.

Aurrera begira, zer beste asmo daukazu buruan?

Orain New Yorkera itzuliko naiz bizitzeko dut uztailaren 1etik aurrera. Liburu bat idazten ari naiz, eta horretan nabil nahiko buru-belarri. Ikerketa basikoa egiten segituko dut, baina nire asmoa da alde klinikotik segitzea, errehabilitazio-programak garatzen; ikasten duguna nolabait komunikatu nahi dut benetako munduan dauden arazoekin.

Ildo horretan, alde klinikoa aipatu duzu, baina ba al da landu nahi zenukeen beste alderdirik?

Hezkuntzan, Estatu Batuetan zehazki, jendeak uste du hobe dela elebakarra izatea elebiduna baino. AEBetako oso tristea da: esan dudana moduan, elebidun gehienak etorkinak dira, eta askotan gurasoek ez diete euren umeei irakasten euren hizkuntza. Eta gero jendeak ezin du barbarik egin bere aiton-amonegaz, eta kristoren tristezia iruditzen zait belaunaldien arteko kate hori haustea. Bestalde, oso kuriooa da, ze hau pasatzen da Bronxeko eta Harlemeko eskola publikoetan, baina Upper East Side-ko

eskola pribatuetan, berriz, hor frantses elebidunak oso ondo, hor elebitasunak ez dakar inongo arazorik.

Elebitasunari buruzko ikuspegietan hizkuntzaren prestigioak badu zerikusirik.

Bai, hori problema sozioekonomikoa da, ez da hizkuntzaren edo elebitasunaren arazoa. Orduan nire jardueraren beste norantza bat da *outreach* edo dibulgazioa delakoa egiten saiatzea eskola publikoegaz, auzo txiroagoetan, euren ikuspuntua aldatzeko, zientziak esaten duena kontatzeko... Nik, Harvardeko kredentzialekin, esaten baldin badut elebitasunak ez daukala kostu negatiborik, horrek pisua dauka, eta nik zerbait kontatzeak lortzen baldin badu belau-naldien katea ez haustea eta erroak ez haustea...

Liburu bat idazten ari zarela ere esan duzu. Zeri buruzkoa da?

Generoari buruzkoa.

Hara... eta? Zer hizkuntzatan idazten ari zara?

Ingelese. Gero asmoa daukat euskarara ere itzultzeko, bueno, ikusiko da. Nire trantsizioari buruzkoa da [genero ez-binario gisa identifikatzen da], *memoir* bat da, eta hiru hari ditu. Batetik 2019an New Yorken zelako egoera dagoen horren kontura; beste haria da egoera hori bera Euskal Herrian, eta azkena da gure gurasoen jenerazioan zer genero-egitura zeuden herrialde honetan, ze hemen egon dira oso-oso-oso sartuta, eta alde horretatik aditu nahi dut gure gurasoen belaunaldiko jendeak zergatik dituen halako erreakzioak eta arazoak, etab. Hiru alde horrek uztartu nahi ditut era batera. Tira, hori da nire deskribapena, gero ez dakit zer izango den. ●



Mundu ekonomiaren mega-mehatxuak



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Aspaldidanik pentsatu izan dugu sistema kapitalistak egunak konstatuak dituela. Agian, gure ametsa izango zen. Izan ere, gure gaztaroan horrela zioen azterketa marxistak eta sinetsita geunden sozialismorako bidea jadanik finkatuta zegoela, sistema sozio-ekonomiko-politiko berrira heltzeko. Anartean, kapitalismoak bizirauteko Keynesek aukerak eskaini zizkion sistema basati eta esplotatzaileari, gizatiarrago bihurtze aldera.

Gerora, sozialismo errealeak porrot egin zigun, baita keynesianismoak ere. Halaber, kapitalismoak une gogorak jasan ditu: petrolioaren krisiak (1973, 1979), finantzarena (2008), teknologia krisiak edo pandemiaren ondorenak (2020-2023), baina beti aurrera egiteko gai izan da, berrasmatzeko ahalmena baitu. Horrela, kapitalismoa gainginduta ahal izateko, ohiko iraultzaren kontzepzioak ez digu balio eta beste bideren bat asmatu behar da.

Hemendik aurrera zer? Munduko kapitalismoak erronka ugari dauzka aurrera bidean, mega-mehatxu aunitz. Horiek guztiek aukerak eman behar dizkigute munduko ekonomia parametro berrietan antolatzeko, non ekoizpen orokorrek jasangarria izan beharko baitu, planeta honetan duin bizitzen jarraitu gura badugu.

Mundu ekonomiak dituen mega-mehatxuz mintzo zaigu N. Roubini, jatorriz turkiarra, baina New Yorken fin-

Hemendik aurrera
zer? Munduko
kapitalismoak erronka
ugari dauzka aurrera
bidean, mega-
mehatxu aunitz

katua, *Mega Threats* (Mega-mehatxuak) liburuan. Sinesgaitza bada ere, Roubinik 2006an aurreikusi zuen 2008an hasiko zen finantza krisia. Hortik du ospea, nahiz eta proposatzen dituen konponbideak hutsalak diren.

Roubinik hamar mega-mehatxu aurreikusten ditu eta hamar horietatik bi aipatuko ditut. Lehena, estatuek eta familiak eskuartean dituzten zorrak, publikoak zein pribatuak. Izan ere, ekonomia batek ezin dezake iraun luze zorpetuta badago; ekonomia bat zorpetu daiteke jarduera ekonomikoa moteltzen denean, baina jarduera berpizten denean, zorrak kitatu behar dira, gutxienez murriztu, gaur egun egiten ez den bezala. Eta zulo horretatik irteteko, zorra barkatu ordez, jarduera ekonomikoa bizkortzea planteatzen du, BPGk %5 ingurura hazi beharko bailuke. Zifra hori lor daiteke garapen bidean zaudenean, baina ia ezinezkoa da ekonomia kontsolidatzen denean; begira bestela Japoniari.

Bigarren mega-mehatxua aldaketa klimatikoarekin lotuta dator. Mega-mehatxu horri aurre egiteko hiru bide proposatzen ditu: 1.- Karbono dioxidoaren *murrizketa*, zeina munduko BP-Gren %2tik %6ra artean kostako litzatekeen, baina orain artekoari so egiten badiogu, utopia dela pentsatzera garamatza. 2.- *Egokitzapena*; kasu honetan onesten da lurreko tenperatura 2,5 gradu igoko dela eta ondorioei aurre egin behar zaiela. Adibidez, New York urakanetatik babesteko irla txikiz inguratzea. Baina lan erraldoi horiek burutzeko, 25 beharko lirakeke, gainera itsaso mailaren igoerari ez lioke aurre egingo; beraz, beste utopia bat. 3.- *Eguzki geoenjineritza*; sistema hau sumendien errauntsak sortzen duen fenomenoan oinarritzen da. Atmosferara erraunts artifiziala jaulkita, airean kokatuko diren partikulak oztopatuko omen die eguzki izpiei lurrerako bidean. Lurreko tenperatura hoztuko litzateke gradu bat edo, baina karbono dioxidoa, kaltegarria duguna, ez litzateke desagertuko eta gaixotasun berriak sortuko lirakeke; konponbide kaskarra.

Ekonomia teoria konbentzionalak mega-mehatxuak onesten ditu, baina ohiko konponbideak proposatuko dizkigu, kontutan izan gabe gure planeta mugatua dela, orain arteko hazkunde mailari eutsi gura badiogu. Haatik, *desazkundeari* heldu behar diogu, berantegi izan baino lehen. ●

Norena da sufrimendu psikologikoaren ardura?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Gehiago hitz egiten dugu orain buruko osasunaz, ongizate psikologikoaz, eta horrek gure bizitzakalitatean duen eraginaz. Poztekoa da, gaia armairutik ateratzeko lagungarria delako, mina denok (eta ez bakar batzuek) dugula erakutsita ondoeza normalizatu egiten delako, eta buruko gaitz eta nahasmenduen inguruan dagoen estigma txikitzen laguntzen du.

Abiapuntua ona da: onartzea inor ez dagoela erabat ongi, bizitza denoi kostatzen zaigula, gure harremanak (ondokoekikoak eta geure buruarekikoak) ez direla izan zitezkeen bezain osasungarriak. Beldurra diogu bakardadeari, ez gara-eta geure buruaren adiskide on, baina baita maitatzeari ere, edo maitatuak izateari. Nork bere barneko hutsunea nola bete, halaxe ibiltzen gara, bilaketa itsuan, are borrokan ere, bizitzaren zentzua non ote dagoen, zein ote gakoa.

Ongi dago hori guztia bistaratzea, ondoeza existitzen dela aitortzetik abiatu beharko baita. Baina, zer egin horren aurrean? Jende gehiagorendako arreta psikologiko doakoa eskatzea ongi dago, edo psikologoarengana joatea gaixo egotearen sinonimo ez dela aldarrikatzea ere bai. Baina naturala al da pertsonak hain ezinean bizitzea?

Sufrimendu psikologikoaren afera ulertzen bi diziplina nagusik laguntzen dute. Psikologiatik, garbi dagoenez. Baina baita politikatik ere, izaki sozialak garelako, eta bizi garen gizartearen nolakotasunak asko eragiten duelako gure bizimoduan (jartzen dizkigun bizitza-baldintzen bitartez) eta gure konfigurazio psikologikoan (dituen balioen eta gudan ereiten dituen pretentsioen bitartez).

Munduaren ipar-mendebalde honetan, pertsonon ongizatea ardatz eta helburu ez duen sistema politiko baten baitan bizi gara, bizitzak galdegiten dituen balioetatik oso urrun, beste interes batzuen arabera antolatutako konfigurazio sozialetan, eta hor, bistan denez, zaila da ongi bizitzea edo ongi egotea. Hasteko, eta nagusiki, prekaritatean edo esplorazioan bizi den jendearentzat. Baina hortik kanpora ere, bizi-baldintza onak zer diren ere birdefinitu beharko litzatekeela uste dut, balioa zeri ematen diogun berrikusi, zeri esaten diogun arrakasta. Produktibitate eroan harrapatuta gaude, ezertarako denborarik ez dugula, eta gauza materialen arabera neurtzen dugu ongizatearen tamaina.

Baldintza horiek salatzea izan beharko luke ondoezari aurre egiteko lehen

neurria, eta hori da, hain zuzen, psikologia zintzo batek egin beharko lukeen lehen gauza, politikoa izatea, pertsonon ondoezaren ardura norbanakoaren eremutik atera eta sistemari garbiki egozteko. Egiturazko aldaketa politikoak exijitzearekin batera, pertsonon konfigurazio psikologikoan hain garrantzi handia duen lehen haurtzaroan jarri beharko luke arreta, modu prebentibo batean aboratu buru-osasuna.

Izan ere, kapitalismoa salatu beharra dago, ados, eta horri lotutako kontsumismoa, edo atsekabe permanentea, noski. Baina ezin da sistema horrek gudan duen arrakasta ulertu, ez baldin badiogu lehen haurtzaroan bizi dugun menpekotasunari begiratzen, eta hori behar bezala zaintzen ez denean, barnean betiko sortzen zaigun hutsune afektiboari. Psikologia eta politika aurrerakoiek, biek ala biek, haurren lehen urteak akonpainatzeko neurriak exijitu behar dituzte.

Urte horietan garatzen dugu sendotasun (edo ahulezia) emozionala, eta hor jarri behar dugu arreta, behintzat pertsonak helduago, asebateago, libreago eta, zergatik ez esan, zoriontsuago izatea helburu duten politikan eta psikologian sinesten baldin badugu. ●



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Ez da amnesia, monarkia da

Espainiako Kanpo Arazoetarako ministroak ukatu egin du Espainia Mendebaldeko Sahararen potentzia administratzailea dela. Baina bada.

Urteetan, Espainiak Sahararen gaian neutrala zela zioen, nahiz eta gezurra izan: partziala zen, oso. Marokoren alde. Palestinako Aginte Nazionalak Misio Diplomatikoa du Madrilen; Fronte Polisarioak horrelakorik amestu ere ez du egiten.

Espainiak inoiz ez du ezer egin Mendebaldeko Saharako herritarrek lege dagokien autodeterminazio-erreferenduma egin ahal izan dezaten. Kontrakoa: Marokoren autonomia-proposamena defendatu du, beti.

Espainiak batere arazo barik onartzen du Marokok Mendebaldeko Sahara osoa okupatzea, nahiz eta okupaziorako eskubidea ematen ei dioten Madrilgo akordioek argi utzi zuten Sahararen hegoaldeko herena Mauritaniarentzat zela. Hau da, iparraldeko heren biak okupatzeko eskubidea leukakeela onartuta ere (eta ez dauka), hegoaldeko herena okupatzeko aukera ez dio ezein legek, ez itunek, ez tratatuk ematen.

Zergatik, orduan, Espainiaren jarrera kolaborazionista hori? EAJko diputatu Aitor Estebanek berriki aurpegiratu dio Espainiako gobernuburu Sánchezi immigrazioaren kontrolagatik egiten duela. Arrazoia dauka, baina ez gutiz: ez da

arrazoia, aitzakia da. Bestetik, immigrazioaren kontrola oraingo aitzakia da, ez duela 40 urtekoa. Garai hartan droga-kontrola zen. Eta okupazioak beste 48 urtez jarraituko balu, Espainiak beste aitzakia batzuk asmatuko lituzke: klima-aldaketa, tomate-inportazioa... edozer.


Benetako arrazoia ez delako horietako bat bera ere, baizik eta monarkia babestea. Horregatik egiten dio Espainiak Marokori men.

Espainiak 1975eko azaroaren 14an saldu zien Mendebaldeko Sahara Marokori eta Mauritaniari. Espainiak 1975eko azaroaren 19an argitaratu zuen Mendebaldeko Saharari uko egiteko legea, sahararrak salduta utzi zituen legea. Bi data horietan Franco diktadorea "bizi" zen, bai, baina jarduneko diktadorea Juan Carlos zen, Espainiako printzea garai hartan. Gaur egun "rey *demérito*" deitzen duten hori berori.

Badakigu, beraz, errege zaharrak saldu zuela Mendebaldeko Sahara. Ez dakigu, sekretua delako, zegan saldu zuen.

Ondoren, errege zela eta errege zelako han eta hemen egindako negozioetan zenbat diru irabazi duen kontuan izanda, pentsa dezakegu ez zituela merke saldu sahararrak, ondotxo irabazi zuela salmenta horretan ere. Baina, jakin, ez dugu jakingo gaia historia-liburuetan egon arte. Monarkia babestu behar delako. ●

Bakardadea



**EVA PEREZ-PONS
ANDRADE**

Gustatzen zait bakarrik egotea. Gustatzen zait bakarrik egotea nik aukeratzen dudanean. Gauza bat edo beste dela eta, gutxitan izaten dut fisikoki bakarrik eta lasai egoteko aukera. Gainezka egiten dudanean, nire gelan sartzen naiz jendearen aurrean lortu ezin daitekeen intimitate horren bila. Etenaldi behartu horiek gehiegi luzatu ditudanean nire buruaz gogaitzera heldu izan naiz. Norberarentzako denbora bilatzetik bukle infernaletan amaitzea, ohiko bat. Halakoetan, barrurantz nagoela esaten diet ingurukoei. Bakarrik nagoelako sentsazioa ere oso errekurrentea da nigan; egun guztia

jendez inguratuta egon eta inoren ezinbestekoa naizela sentitu.

Maitasun erromantikoak harreman guztiak ziprztintzen ditu, argi dago. Eta ez da bidezkoa, besteak egon badaudelako. Egon badaude uzten ditudan neurrian eta ahal duten moduan. Askotan, besteekiko dugun espektatibaren emaitza baino ez da bakardade sentsazioa. Eta zenbat eta prekarioagoa eta indibidualistagoa den gizarte batean, geroz eta zailagoa da harremanak zaintzea, eta gure errealitateak umetatik saldu diguten harreman eredu idealekin konparatzeko dinamika automatikoa da. ●

Osasun sailburuari gutun irekia



AITOR MONTES LASARTE
OSAKIDETZAKO MEDIKUA

Gehiago hitz egiten dugu orain buruko osasunaz, ongizate psikologikoaz, eta horrek gure bizitzakalitatean duen eraginaz. Poztekoa da, gaia armairutik ateratzeko lagungarria delako, mina denok (eta ez bakar batzuek) dugula erakutsita ondoeza normalizatu egiten delako, eta buruko gaitz eta nahasmenduen inguruan dagoen estigma txikitzen laguntzen du.

Abiapuntua ona da: onartzea inor ez dagoela erabat ongi, bizitzea denoi kostatzen zaigula, gure harremanak (ondokoekikoak eta geure buruarekikoak) ez direla izan zitezkeen bezain osasungarrienak. Beldurra diogu bakardadeari, ez gara-eta geure buruaren adiskide on, baina baita maitatzeari ere, edo maitatuak izateari. Nork bere barneko hutsunea nola bete, halaxe ibiltzen gara, bilaketa itsuan, are borrokan ere, bizitzaren zentzua non ote dagoen, zein ote gakoa.

Ongi dago hori guztia bistaratzea, ondoeza existitzen dela aitortzetik abiatu beharko baita. Baina, zer egin horren aurrean? Jende gehiagorendako arreta psikologiko doakoa eskatzea ongi dago, edo psikologoarengana joatea gaixo egotearen sinonimo ez dela aldarrikatzea ere bai. Baina naturala al da pertsonak hain ezinean bizitzea?

Sufrimendu psikologikoaren afera ulertzen bi diziplina nagusik laguntzen dute. Psikologiatik, garbi dagoenez. Baina baita politikatik ere, izaki sozialak garelako, eta bizi garen gizartearen nolakotasunak asko eragiten duelako gure bizimoduan (jartzen dizkigun bizitza-baldintzen bitartez) eta gure konfigurazio psikologikoan (dituen balioen eta gudan ereiten dituen pretentsioen bitartez).

Munduaren ipar-mendebalde honetan, pertsonon ongizatea ardatz eta helburu ez duen sistema politiko baten baitan bizi gara, bizitzak galdegiten dituen balioetatik oso urrun, beste interes batzuen arabera antolatutako konfigurazio sozialetan, eta hor, bistan denez, zaila da ongi bizitzea edo ongi egotea. Hasteko, eta nagusiki, prekaritatean edo esplotazioan bizi den jendearentzat. Baina hortik kanpora ere, bizi-baldintza onak zer diren ere birdefinitu beharko litzatekeela uste dut, balioa zeri ematen diogun berrikusi, zeri esaten diogun arrakasta. Produktibitate eroan harrapatuta gauden, ezertarako denborarik ez dugula, eta gauza materialen arabera neurtzen dugu ongizatearen tamaina.

Baldintza horiek salatzea izan beharko luke ondoezari aurre egiteko lehen

neurria, eta hori da, hain zuzen, psikologia zintzo batek egin beharko lukeen lehen gauza, politikoa izatea, pertsonon ondoezaren ardura norbanakoaren eremutik atera eta sistemari garbiki egozteko. Egiturazko aldaketa politikoak exijitzearekin batera, pertsonon konfigurazio psikologikoan hain garrantzi handia duen lehen haurtzaroan jarri beharko luke arreta, modu prebentibo batean aboradatz buru-osasuna.

Izan ere, kapitalismoa salatu beharra dago, ados, eta horri lotutako kontsumismoa, edo atsekabe permanentea, noski. Baina ezin da sistema horrek gudan duen arrakasta ulertu, ez baldin badiogu lehen haurtzaroan bizi dugun menpekotasunari begiratzen, eta hori behar bezala zaintzen ez denean, barnean betiko sortzen zaigun hutsune afektiboari. Psikologia eta politika aurrerakoiek, biek ala biek, haurren lehen urteak akonpainatzeko neurriak exijitu behar dituzte.

Urte horietan garatzen dugu sendotasun (edo ahulezia) emozionala, eta hor jarri behar dugu arreta, behintzat pertsonak helduago, asebateago, libreago eta, zergatik ez esan, zoriontsuago izatea helburu duten politikan eta psikologian sinesten baldin badugu. ●



**EUSKAL HERRIKO
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria
Beizama, Gipuzkoa



**EGIN ZURE
HAZI ESKAERA!**

www.aleka.eus

- BASERRITARRAK SAREAN
- AGROEKOLOGIA
- BIOANIZTASUNA
- BERTAKO EKOIZPENA

ERRENTA **RENTA22**

Apirilaren 17tik ekainaren 30era



AURREZ AURREKOA

Ogasuneko eta Gertu bulegoetan, 8:30etatik 19:00etara,
aurretiko hitzorduarekin 94 406 66 00 telefonoan



TELEFONOS

94 608 3000

8:30etatik 19:00etara



DIGITALA

www.bizkaia.eus/errenta

Bizkaia Errenta app



**Europar Batasunarekin
batera finantzatua**



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GOIZALDI EUSKAL DANTZARITALDEA

75 urte kaleak dantzan jartzen



Aitzindariak izan ziren, gerraosteko Donostian, euskal kultura berreskuratzeko lanetan. Ordutik, ezinbesteko erreferentzia izan dira hiriko kultur paisaian, baina atzerrian ere egin dituzte enbaxadore lanak. Belaunaldia berrituta ekin diote urtemuga biribilari, ekitaldiz kargatutako egitarau oparoarekin.

 **JOSU NARBARTE HERNANDEZ**



Goizaldiren 75. urtemugaren ospakizunak otsailaren 2an abiatu ziren, hiriko kaleetan barrena egindako prozesio eta ezpata-dantzarekin; hala egin zuten 1998an ere, 50 urte bete zituztenean. Datozen hilabeteetarako beste hamaika ekitaldi prestatu dituzte, euskal dantzaren aitzindarietako bat den Goizaldik bizi-bizirik jarraitzen duela erakusteko.

IBILBIDE LUZEA

Donostiako kultur eragile zaharrenetakoa da Goizaldi Euskal Dantzari Taldea. 1927an sortutako Udal Dantza Eskolan du iturburua, baina sortu, Gerra Zibilaren ondoren sortu zen, Kandido Pujana (Ordizia, 1905 - Donostia, 1985) maisua aurreko esperientzia hura berreskuratzen saiatu zenean. 1948an mutil-talde bat eratu zuen, eta 1951ean neskena.

Lehen unetik, taldearen helburu nagusia euskal dantza zaharrak berreskuratzea izan zen. Horretarako, Joan Inazio Iztuetak XVIII. mendean egindako Gipuzkoako dantzen deskribapenak hartu zituzten oinarri, baina pixkanaka, Euskal Herriko beste dantza batzuk ere lantzen eta Donostiara ekartzen hasi ziren. Garai zailetan, euskararen eta euskal kulturaren gordailu izan zen Goizaldi.

Ibilbide horren lekuko izan zen Aritz Salamanca Tapia (Lezo, 1979). 1996an sartu zen taldean, 16 urte zituela: "Ordurako 10 urte neramatzan dantzamunduan, Lezoko Murixka taldean, eta Siziliako Roccalumera izeneko herrian ospatzen zen jaialdira joateko gonbidatu ninduten. Handik itzultzean, Goizaldiko kide egitea erabaki nuen, betiere herriko taldea utzi gabe".

Urte horietan, taldea trantsizio-une bat bizitzen ari zen. Salamanca: "Ordura arte gidaritzan aritu zen Ramon Santxezek ardura hori uztea erabaki zuen eta, zenbait urtez Xabier Ezkurra aritu ondoren, 2000. urtean niri eskaini zidaten".

Salamancak hamabost urtez gidatu zuen Goizaldi, eta lehen eskutik ezagutu du taldearen bilakaera. Garrantzitsua deritzo lagunarteko giroa mantentzea, eta horretan tematu da: "Kideok denbora asko pasatzen dugu elkarrekin, eta taldea osasuntsu mantentzeko ezinbestekoa da harreman ona izatea".

75 urteotan, oinordekotzan jasotako ondare kulturalaren zaintza eta transmisioa izan da taldearen xede nagusia. Salamancak dioenez, Goizaldik "altxor kultural izugarria" jaso zuen Gipuzkoa-

ko dantzen ezagutza sakona zuten maisuen eskutik, eta jarduera ugari egin ditu ondare hori zabaltzeko. Lehenik, Donostian; hainbat dantzari-belaunaldi formatu ez ezik, taldeak bere tokia egin du hiriko jai-egutegian —Arriadako ekitaldia San Sebastian egunean; San Joan bezperako soka-dantza Plaza Berrian; Aste Nagusiko emanaldia; eta abar—. Bigarrenik, Euskal Herriko beste hain-

bat txokotan; mota guztietako emanaldi eta kale-jiretan parte hartzeaz gain, Gipuzkoako dantzak irakasteko hainbat ikastaro egin dituzte, adibidez. Hirugarrenik, nazioarteko hamaika jaialditan, euskal kulturaren enbaxadore gisa.

Ibilbide oparoa izan da, eta hala oroitzen du Salamancak. "Guretzat ohorea izan da, eta kulturaren eta dantzaren osasunarentzat ere bai".



50. urteurrena ospatzeko ezpata-dantza prozesioa, 1998an. (Iturria: Goizaldi)



Donostiako Konstituzio Plazan, San Joan Bezperako soka-dantzan, 1950ean. (Iturria: Kutxateka)

BERRIKUNTZA, LAU URRATSETAN

Salamancak 2015ean utzi zuen taldearen gidaritza, eta Ane Bengolainek eta Eneko Munarrizek hartu zuten lekukoa. Hurrengo urteetan atzera ere aldaketak izan ziren taldean, kide ugari alde egin eta belaunaldi berri bat iritsi baitzen. Hori gutxi ez eta 2019an hainbat istilu izan ziren taldeak bere egoitza duen kontserbatorioko zuzendaritzarekin, ateko sarraila aldatzeraino. Horri 2020ko pandemia eta itxialdia gehituta, taldeak ia urte eta erdiz izan zuen bere jarduna geldituta.

Egoera horretan, hausnarketa prozesua abiatu zuten. Estatutu berriak adostu eta zuzendaritza-taldea berritzeko hautua egin zuten, etapa berri bati ekiteko. Azken urteotan, Ane Lamarka Etxeberría (Donostia, 1997) eta Araitx Iparragirre Lekuona (Oiartzun, 1993) arduratu dira entseguak gidatzeaz. Hainbat erabaki garrantzitsu hartu dituztela azaldu digute.

Lehen erabakia entsegu mistoak egitea izan zen. Iparragirrek azaldu duenez, 2019ra arte astean hiru saio egiten zituzten: neskek eta mutilek bana, eta hirugarrena mistoa. Orain, bi saio misto baino ez dituzte egiten eta, horri esker, dantzari guztiak dantza guztiak ikasten hasi direla diote. Lamarkaren ustez, horrek presentzia eman die neska dantzarietradizionalki prestigiozkotzat jo

izan diren zenbait dantzatan, orain arte mutilek egin izan baitituzte. "Oier Araolaza bezalako ikerlarien lanek lagundu ziguten erabaki hori hartzen", azaldu du: "Izan ere, ikusi genuen dantzak generoaren arabera banatzea XX. mende hasierako eraikuntza ideologikoa zela, euskal dantza folklore 'nazional' bezala kodifikatzen ari zen garaikoa".

Lehen erabaki horrek berez ekarri zuen bigarren galdera: nolako jantziak behar ziren genero-markarik gabeko euskal dantza egiteko?. "Guk argi genuen", dio Iparragirrek: "Dantzan generoa bereizten ez bagenuen, jantzietan ere ez genuen bereizi behar". Ordurako baziren dantza guztiak bereizketarik gabe egiten zituzten taldeak (Añorgako Arkaitz eta Beasaingo Aurtzaka, adibidez), eta haiek hartu zituzten eredu.

Gaur egun, Paula Lizartza Muñoz (Donostia, 1997) eta Eneko Iparragirre Lekuona (Oiartzun, 1996) arduratzen dira jantziez. "Sormen-ariketa bat" bezala gogoratzen dute prozesua: "Taldeen erabaki genuen nola diseinatu nahi genituen jantzi berriak; zalantza eta eztabaida handiak izan genituen".

Taldeak oso pozik daude hartutako erabakiarekin, eta Lamarkak, gainera, uste du "oso ongi" hartu dela kanpora begira ere: "Hasiera batean, oholtzara igo edo plazara ateratzen ginenean, harridura nabaritzen ge-



Corpus eguna Ordizian, 1935ean.
(Iturria: Kutxateka)



“Genero-rolak oso markatuta egon ohi dira, eta harrigarria zaie Europan guk marka horiek desegin izana”

nuen, baina jendeak berehala ulertzen zuen hartutako erabakia, eta egun naturaltasun osoz aritzen gara”.


Dantzari ohiena izan da bereziki hun-
kitu dituen erreazio bat: “Otsailean, ur-
temugako ospakizunen harira egindako
ezpata-dantzan, taldean ibilitako zen-
bait emakumek lehen aldiz izan zuten
ezpata-dantzariz janzteko aukera; ba-

tzuek benetako ilusioa egiten ziela adie-
razi ziguten, eta horrek berretsi digu
emandako urratsa egokia izan zela”.

Euskal Herritik kanpo, aldiz, harridu-
ra handiagoa antzeman dute. Iparragire:
“Azken urteetan bi jaialditan izan gara:
2018an Idahon eta 2022an Polonian,
eta ikusmira handia piztu genuen”. Hori
tradizioaren inguruko ikuspegiarekin

lotuta egon litekeela uste dute elkarriz-
ketatuek. “Europa ekialdeko herrialde
batzuetan, folklorea nazio-identitate tra-
dizionalekin identifikatzen da, eta para-
metro horietan ez dago toki handirik ikus-
pegi kritikoak eta berrikuntzak lantzeko.
Genero-rolak oso markatuta egon ohi dira,
eta harrigarria zaie guk marka horiek de-
segin izana”.

Hirugarren erabaki garrantzitsua en-
tsegu-aretoari lotuta egon da. “Beharra
bazutela” diote, aitortzen dute, baina az-
ken urteetan “hainbat arazo” izan dute
antz. Horregatik garbitu eta txukundu
egin dute aretoa, ispiluak eta altzariak be-
rrituta, adibidez. Hala ere, kontserbato-
rioko zuzendaritzarekin izandako istiluen



Euskal Jaia Donostian,
1971ko irailaren 8an.
(Argazkia: Javier Garayalde)



Goizaldiko dantzariak Llangollen-en, Galesen, 1956an. (Iturria: Goizaldi)

ondoren ur-hornidura etenda gelditu zaie, eta aldagelak eta komunak erabili ezinda dabilta. “Horrek buruhausteak eragiten dizkigu eguneroko dinamikari ekiteko orduan”.

Gauzak horrela, batzorde bat osatu dute areto berria lortzen saiatzeko. “Oraingoa Donostiako Udalak utzi zigun aspaldi, baina gero eraikin osoa Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen kontserbatorioa kokatzeko. Gu egoera lauso batean gelditu gara, eta eskertuko genuke erakundeek konponbide bat bilatzen laguntzea”. 2019az geroztik hainbat bilera izan dituzte Udalarekin eta, hasiera batean konsistorioa laguntzeko prest azaldu bazen ere, egoera blokeatuta dago gaur egun.

Berrikuntza-dinamika horren baitan, publiko zabalarekin harreman estuagoa garatzea izan da Goizaldik hartu duen laugarren erabakia. Hala, Lide Pagola Agorregik (Usurbil, 2000) taldearen sare sozialak dinamizatzeko ardura hartu du; “jende gehiagorengana iritsi nahi dugu”. Horrekin batera webgune berria sortu dute eta taldearen Wikipediako orria ere osatu eta garatu dute. Ander Domingo Pikabea (Lezo, 1988) taldearen artxibo grafiko oparoa antolatzeke lanetan dabil.

GEROA, HELBURU

Goizaldiren berrikuntza-prozesua euskal dantzak bizi duen egoeran kokatu behar da. Izan ere, talde ugari nabaritu dute azken urteetan beherakada, bai dantzari-

kopuruan, bai disziplinak agenda publikoan daukan ikusgarritasunari dagokionez. Xabier Etxabek, adibidez, 2009an idatzitako artikulua batean ohartarazi zuen euskal dantza halako “infantilizazio” bat pairatzen ari dela; helduak pixkanaka erretiratzen joan dira eta, haien gibelatik, baita nerabeak ere. Horrekin batera, nabarmena izan da feminizazio prozesua ere; emakumeen parte hartzea normalizatu izana berri pozgarria den arren, hausnartzeko modukoa litzateke zergatik gero eta gizon gutxiago hurbiltzen diren disziplinara, eta genero-rolen arabera antolatutako kultur sisteman horrek loturarik ba ote duen jarduera bakoitzari aitortzen zaion prestigio sozialarekin.

“Argi dago herritarrek oraindik ere dantza eskatzen dutela plazetan. Jendeak ordezkatuta ikusten du bere burua”

Donostiako taldeak ere argi du euskal dantzaren geroa segurtatzeko erronka handiak daudela mahai gainean. Transmisioarena da nagusietako bat. Hainbat urtez, taldeak dantza-akademia izan du nerabeak formatzeko eta harrobia lantzeko; bada, azken bi urteetan, ez dute ikaslerik izan, eta “hausnarketa” bat beharrezkoa dela iritzi du Iparragirrek. “Kontutan hartu behar da, Gipuzkoan, eskola kirola Foru Aldundiak babesten duela; baina euskal dantza ez da sartzen aterki horren pean. Dantza taldeok auto-sufiziente izatera behartuta gaude, gure burua ezagutzera emateko eta gazteak erakartzeko orduan”. Euskal kultura eta ariketa fisikoa uztartzen dituen disziplina izaki, erakunde publikoek euskal dantza suspertzeko ahalegin handiagoa egin lezaketela uste dute.

Dena den, baikor begiratzen diote georari: “Zailtasunak gaindituko ditugu. Argi dago herritarrek oraindik ere dantza eskatzen dutela plazetan. Urtean zehar hainbat ekintza egiten dugu, eta jendeak propio bezala sentitzen ditu, ordezkatuta ikusten du bere burua”. Dantzariak ere gogotsu daude, ikasitakoa zabaldu eta gauza berriak probatzeko prest. *Kultura* kontzeptuak adierazpen estetiko gero eta estandarizatuagoak soilik biltzen dituela dirudien garai globalizatuotan, turista-uholdeen azpian itotako Donostia hone-tan, ez da gutxi jendeak dantza gosea edukitzea. ●



Goizaldiko egungo dantzariak, entsegu egun batean. (Iturria: Goizaldi)

DATOZEN ZITAK

Ekainak 23: Soka dantza Konstituzio Plazan, sua piztu aurretik.

Abuztuak 14: Plaza Berrian, Aste Nagusiko ekitaldien baitan, emanaldia dantzari eta musikari izandakoekin.

Irailak 9: Donostiako Euskal Jaiko ekitaldian hartuko dute parte.

Irailak 15-urriak 15: Goizaldiren ibilbidearen inguruko erakusketa ikusgai Okendoko Kultur Etxean.

Urriak 7: Euskal Herriko Dantzari Eguna Donostian.

Azaroak 26: Joan Inazio Izuetari omenaldia egingo diote bere jaioterrian, Zaldibian.

Ginekologoarengana joateko hamaika traba

Hainbat gaztek ginekologoarekin duten lehen harremana korapilatsua izan ohi da. Euren bizipenak eta kezkak kontatu dizkigute Aroa Sotelok (Bilbo, 1998), Ainhoa Labairuk (Bilbo, 1998), Naiara Martinek (Mar del Plata, Argentina, 1990) eta Uxue Reyk (Iruñea, 1997). Lehenago artatzeko premia azpimarratu eta gizonezko medikuen hoztasuna salatu dute. Kritikatu dute erabiltzaileengan jartzen dela artatzeko ardura osoa.

 OLAIA L. GARAIALDE  PAULA ESTÉVEZ

Karrikatik doazen gazte batzuk ginekologoaren inguruan solasean ari dira. Kontsultara joateko deitu diote bati, eta kezkatuta, harrituta eta apur bat beldurtuta dirudi. “Zuek joan zarete?”, galdetu die urduri. Batek baietz erantzun, eta galdezka hasi da: “Noiz joan zinen? Nolakoa izan zen? Zer egin zizuten? Mina ematen du?”. Esperientziak konpartitzen hasi dira denak.

Duela gutxi eskatu zuen ginekologoak azterketa egiteko lehen hitzordua Aroa Sotelok. Familia medikura jo zuen, baina ordua hartzeko zailtasunak izan zituen: “Esan zidan: ‘Baina ba al duzu arrazoirik?’. Esan nion ez naizela inoiz joan, badela azterketa egiteko garaia”. Medikuek erantzun zion “pisuzko arrazoi bat” behar zuela. Hala ere, hitzordua eskatzeko laguntza eskaini zion: “Ikusi zuen historialean jartzen zuela txikitan hilekoagatik mina neukala, eta galdetu zidan ea orain minik neukan. Baietz esan nionez, esan zidan bide horretatik lortu nezakeela hitzordua”.

Medikuaren laguntza eskertu du Sotelok: “Uste dut eragina izan duela medikua emakumea izateak”. Salatu du osasun sistemak ez diola ginekologiaren auziari erreparatzen: “Ez diete garran-

tzirik ematen gure osasunari eta arazoei, eta badirudi zeozert gertatu behar zaigula guri kasu egiteko”. Aste Santuan eskatu zuenez hitzordua, eta medikua oporretan zegoenez, zailtasunak izan zituen: “Ez zuten ordezkorik jarri, horrek esan nahi du ez dagoela jenderik gu entzuteko. Badirudi minagatik hiltzen egon behar garela kasu egin diezaguten”.

Ez da lehenago ginekologoarenera joan, beldurra ematen diolako: “Ezezaguna da eta prozedura oso inbaditzailea izan daiteke”. Horrez gain, uste du ginekologoaren arabera oso desberdina izan daitekeela esperientzia: “Espero dut emakumea izatea. Ziur gizon profesionalak daudela, baina beldurra ematen dit lotsatuta edo behartuta sentitzeak”. Osasunerako beharrezkoa den arren, “oso intimoa” dela dio.

“Errazagoa” izanen litzateke ginekologoaren kontsultara joatea, lehenagotik heziketa eta informazio gehiago izanez gero: “Txikitatik hitz egingo bagenu, lotsa gutxiago izango genuke”. Horrekin batera, salatu du begirada zisheterotik artatzen dela: “Egia ez izan arren, asumitzen dute emakumea naizela, eta nire bikotekidea gizona, eta hortaz, kondoa erabiltzen dugula”.

INDARKERIA GINEKOLOGIKOA

Ainhoa Labairu 16 urterekin joan zen lehenbiziko aldiz ginekologoarengana. Salatu du medikuak gehiegikeriaz jokatu zuela, eta “oso erasokorra” izan zela. Horregatik, ez du berriz itzuli nahi: “Erreparoa handia ematen dit, eta larritzen naiz”. Esperientzia gogorra izan zenez, ez du benetako izena eman nahi.

Betidanik hileko irregularrak izan arren, uda batean “etengabe” odolustan ari zelako joan zen amarekin familia medikura. Kezkatu zirenez, ginekologoarenera bidali zuten. Kontsultan bi pertsona zeuden: gizon “serio” zahar bat betaurrekoekin –ginekologoa–, eta 40 urte inguruko emakume bat –erizaina–. Ez zioten azaldu zer egingo zuten: “Ikusi nuen zilarrezko makil moduko bat atera zutela, nahiko luzea, eta ginekologoak erizainari esan ziola bestea pasatzeko, handiagoa zirudiena. Abisatu barik makila sartu zidan, izugarria izan zen”. Mina baino, “deserosotasuna” eta “sorpresa” sentitu zituela esan du.

Ostean, deus esan gabe medikuak eskua sartu zion baginan: “Gogoan dut esku bat barruan zeukala, eta bestea kanpoan, eta umetokiaren gainean kolpeak ematen hasi zela. Ikaragarritzko



mina eta deserosotasuna sentitu nituen". Etzanda zegoelarik erizainak eskua ematen zion, eta lagundu nahian lasaitzeko gauzak esaten zizkion: "Sentitu nuen pena ematen niola, esaten zidan: 'Lasai, mina ematen du?'". Gizona aldiz berera zegoela salatu du: "Erizaina ni zaintzen ari zen, eta tipoa, deus esan barik, nahi zuena ukitzen".

Hileko irregularrak zituela esan, eta antisorgailu hormonalak errezetatu zizkion: "Uste dut bidali zizkidala ez zuela deus ikusten. Gelatik atera ginenean amak esan zidan ez nituela hartuko, eta errezeta apurtu zuen".

Labairuk uste du esperientzia bestelakoa izan zitekeela ama alboan egon izan balitz, eta prozedura azalduz gero: "16 urte nituen, eta ez nekien zer egingo zidaten. Gainera, eskua atera zuen, eta ondoan jesarri ginen, deus gertatu ez balitz bezala". Argi ikusi zuen maskulinitatearen irudi "guztiz zurruna": "Zergatik erizainak erakutsi behar ditu laguntzeko prestutasuna eta zaintza, eta ezin du ginekologoak hori eskaini?".

Gaineratu du testuingurua "oso hotza" eta "zurruna" zela: "Emozio puntu bat ere adierazten ez zuen gizon aseptiko bat neukan aurrean". Horregatik, berriz joatearen beldur da: "Badakit desberdin jokatu nukeela, baina beldurra emango lidake nor tokatu litzaidakeen pentsatzeak".

HITZORDUA ESKATZEKO TRABAK

Naiara Martin aurten joan da lehenengo aldiz ginekologoarenera. Ez du benetako izena eman nahi emakume transexuala delako, eta transfobiaren beldur delako. Tailandian egin zuen ebakuntza, Nafarroan hamar urteko itxaron zerrenda dagoelako. Zirujauak esan zion beharrezkoa zela jarraipena egitea dena ongi dagoela ziurtatzeko: "Gutun batekin etorri nintzen, eta bertan argi eta garbi jartzen zuen ginekologo batek artatu behar ninduela".

Transbidera jo zuen hitzordua eskatzeko, transexualen, transgeneroen eta intersexualen Nafarroako arreta zerbitzura: "Esan zidaten ez nuela ginekologorik behar, umetokiko minbizia dugararen zantzuak ikusten ditugunean edo errebisioetarako soilik joaten delako jendea". Gutuna erakutsi arren, esan zioten lehenik endokrinoarekin hitz egin behar zuela, eta hark esanen ziola nork artatuko zuen: urologoak, ginekologoak edo zirujau plastikoak.

Bitartean, Lizarrako osasun etxera jo zuen, eta segituan jarri zuten itxaron

*Martinek uste du
"zorteduna" dela,
hitzordua azkar lotu
duelako:*

*"Bilbon bizi den lagun
batek zauri bat dauka
baginan, eta bost
hilabete barru eman
diote hitzordua"*

zerrendan. Hilabetera deitu zuten. Nabarmendu du arreta "zentzuzkoa", "zintzoa" eta "hurbila" izan zela: "Ez zeukaten esperientziarik horrelako ebakuntzak dituzten emakume transekin, baina emakume zis eta mutil transekin bai". Deus egin baino lehen, zer egingo zuen azaldu zion, eta dena ongi zegoenez hiru hilabete barru berriz joateko esan zion: "Edozein arazo izanez gero berriz deitzeko esan zidan".

Medikura joan baino lehen jarrera transfoboak pairatzeak kezkatzen zuen, oster, "oso ongi" sentitu zela nabarmendu du: "Uste nuen herrian mentalitate itxiagoa izan zezaketela, eta baztertua sentitu ahal nintzela, baina orain badakit berriz itzuli naitekeela".

Transbiden, aldiz, endokrinoarenera bidali zuten: "Ez zenez ginekologian aditua, eskularruak jantzi, eta pixka bat begiratu ninduen kanpotik". Ostean, ez zuten deitu ginekologoak artatzeko. Transbidek ginekologo espezializatua duen arren, esan zioten ezin zuela artatu, erretiroa hartzeko zorian dagoelako: "Ez da nire ardura ginekologorik ez egotea, haiek bermatu behar dute pertsona bat gu artatzeko".

Kontent da erreferentziazko ginekologo bat lortu duelako, familia medikuaren bitartez. Hala ere, uste du "zorteduna" dela, ezohikoa delako hitzordua lotzea: "Bilbon bizi den lagun batek zauri bat dauka baginan, eta bost hilabete barru eman diote hitzordua". Martinek ere salatu du erabiltzaileengan jartzen dela artatzeko ardura: "Tematiak izan behar gara behar dugun arreta jasotzeko".

'PISUZKO ARRAZOIEN' BEHARRA

Uxue Reyk ere bat egin du eskatzen tematu beharrarekin: "Badirudi mesedez-arren eskatu behar ditugula probak. Ez dakit zenbatero komeni den egitea, baina behintzat eskatzen duenak ez dezala sentitu behar baino gehiago eskatzen ari dela". Uste du horrek eragin dezakeela gutxiago joatea.

Ginekologo pribatuan zein publikoan ibili da Rey, eta bi lehenaldi deskribatzen ditu. 14 urterekin bata: "Senide batek arazo ginekologiko larri bat izan zuen duela 40 urte inguru, ez zutelako garaiz atzeman. Neuk ere izatearen beldur zenez, konfiantzazko mediku batengana eraman ninduen". Ginekologo pribatu batek artatu zuen: "Ez inola ere mesfidati garelako publikoarekin, baizik eta kasu horretarako pertsona horrengana jo nahi zuelako senideak". Nahiko "lausoa" du egun hori, baina uste du ez zizkiotela azalpen asko eman: "Eta emanez gero, ez nituen ulertu". Sexu harremanak izaten zituen galdetu zioten, proba modu batean edo bestean egiteko. Bisita "arrotza" egin zitzaion: "Oso gizon heldua zen, pentsa, oroitzen naiz gorbataren koloreez".

Sei urte geroago, azterketa bat egiteko garaia zela pentsatu zuen: "Amak animatu ninduen, bazekielako ordu-rako sexu harremanak izanda nituela beste pertsonekin". Familia medikua-rekin hitz egin zuen, baina soilik erizainarekin eman zioten ordua: "Zergatik nahi duzu?", galdetu zidan medikuak. Eta nik esan nion azterketa egin nahi nuela. 'Baina zerbait gertatzen zaizu?', esan zidan. Zer da zerbait izatea? Oinaze bat? Kezkaren bat?".

Azkenik, berriki, lehenengo zitologia egin du Andraizen, Sexu eta Ugalketa Osasunerako Nafarroako Arreta Zentroan: "Erreferentziazko leku bat da niretzat". Reyren adinkideek ez dute oraindik zitologiarik egin, eta uste du berak egin izana "kasualitatea" dela: "25 urte betetzeko bi hilabete falta zirenean ginekologoarengana joan nintzen oinaze bat neukalako. Han nengoenez, esan zidaten dena egingo zidatela".

Salatu du "kontrolik eza handia" dagoela: "Norberaren erabakiaren esku geratzen da ginekologoarenera joatea". Lehenago joatea beharrezkoa dela uste badu ere, azpimarratu du "idealena" ez dela pribatutik joatea: "Osasun sistema publikoak bermatu beharko luke arreta". ●

Prebentziorako zitologia 25 urtetik gorakoentzat



YAKOBCHUK OLENA / GETTY IMAGES / ISTOCKPHOTO

“ ”

Neska gazteetan giza papilomak eragindako infekzioen intzidentzia nahiko altua da, baina birusaren ezabatze-tasa askoz handiagoa da

MARTA RUIZ, GINEKOLOGOA

Zergatik egiten da zitologia 25 urterekin? Zergatik ez lehenago? Zein proba eskatu daitezke? Galdera horiei erantzun diete Marta Ruiz ginekologoak eta Itziar Ayensa erizainak. Andraizen egiten dute lan biek.

Zitologiaren helburua prebentzioa da; umetoki lepoko minbiziari lotutako infekzioak edo patologia atzematea. Hau da, xedea ez da jada minbizia duten pertsonak detektatzea; baizik eta sintomarik ez dutenak, baina lesio aitzindariren bat izan dezaketanak eta denborarekin umetokiko minbizia izateko arriskua dutenak hautematea.

Umetoki-lepoko patologia lotuta dago giza papilomaren birusarekin, sexu-transmisiozko infekzioa dena. Horregatik, zitologia soilik egiten dute beste norbaitekin harreman sexualak dituztenekin. Ruizek azaldu du 25 urtetik behariko umetokiko minbiziaren intzidentzia “oso arraroa” dela.

Zitologia bidez detektatzen dute birusa, eta Ruizen arabera, emakume gazteen kasuan askotan detektatzen dituzte asaldura zitologikoak edo alterazio “txiki” eta iragankorrak: “Neska gazteen artean, giza papilomak eragindako infekzioen intzidentzia nahiko altua da, baina haien immunitate sistemak hobeto erantzuten du, eta birusaren ezabatze-tasa askoz handiagoa da”.

Ohartarazi du kaltegarria izan daitekeela lehenago egitea: “Kostu ekonomiko

handia, beharrezkoa ez den tratamendua, sistema immunologikoa ahultzea eta ondorio psikologikokoak eragin ditzake”.

Erizaintzan egiten dituzte zitologia eta infekzioak detektatzeko kultiboak, eta horretan aritzen da Ayensa: “Arazorik badago, ginekologoarengana bidaltzen ditugu”. Edozein proba egin baino lehen dena azaltzen diete: “Poliki goaz, ematen dugun urrats bakoitza azaltzen; hala nola esaten diegu espekulua sartuko diegula eta ez dela mingarria”. Helburua da pazienteak “lasai” egotea, eta ez izatea desatsegina: “Posizioarengatik, beti izango da pixka bat desatsegina, baina saiatuko gara ahalik eta atseginena egiten”.

Nafarroan ez dago uteroa duten pertsonentzako baheketa automatikorik; hau da, ez zaie deitzen 25 urte betetzen dituztenean. Hortaz, behaketa eskatzeko bi modu daudela aipatu ditu Ruizek: “Behaketa oportunistak da; hau da, soilik deitzen diegu beste arrazoi batzuegatik etorri direnei, dagoeneko sistemak daudelako. Beste aukera bat da haiek deitzea eta ordua eskatzea”. Hortaz, ginekologoan inoiz egon ez direnen kasuan, haiengan jartzen dute deitzeko ardura. Dena dela, Nafarroan sistema aldatzen ari dira, eta populazioaren arabera baheketa egiten ari dira; momentuz 25 urtetik gorakoentzat da. Euskal Herriko gainerako lurraldeetan ere 25 urtetik gorakoei bideratzen zaie proba egitera sistema publikoan.

Zitologiaz gain, bestelako errebisioak ere egiten dituzte Andraizen; Ruizek go-raipatu du Sexu eta Ugalketa Osasunerako Arreta Zentroek ateak zabalik dituztela edozein zalantza edo kezka argitzeko: “Berdin dio 25 urte bete ez badituzu, printzipioz guztiak daude eskuragarri osasun heziketarako, sexu hezkuntzarako, sexualitaterako, sexu transmisiozko infekzioekin zerikusia duen edozein alderditarako eta antisorgailuen gairako”.

Nabarmendu du hezitzaileak ere badaudela, eta haien lana oso garrantzitsua dela: “Ez dago itxaron zerrendarik, eta edonorekin joan zaitezke; hala nola lagunekin, bakarrik, edo bikotekidearekin”. Sexu eta Ugalketa Osasunerako Arreta Zentroetara joateko deia egin die gazteei. ●

**DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

“ ”

*Kacheukoek uste dute
palestinarrak erdi gizakiak direla
eta judutarrak gizaki gorena,
ni bi erdiak nintzen*

Gilad Sade

Munduko mapako eremurik beroenetako batean jaio eta hazi zen Gilad Sade (1986): Haifan, Israelen jaio zen, eta Hebronen eta Jerusalemen hazi. Alegia, gatazka geopolitikoak gurutzatu du bere bizia hasieratik bertatik. Ama ezkongabe baten seme, Israelgo Kach talde terrorista ultraeskuindarraren inguruko komunitatean hezi zuten, eta bertako buruzagiek eta bere ingurukoek sinetsarazi zioten bere aita palestinarra zela eta Kachek ama eta biak erreskatatu zituela gehiegikeriazko harreman horretatik. Antolakundearen barruan izen sonatu bihurtu zen Sade, Itamar Ben Gvir egungo Israelgo Segurtasun Nazionaleko ministroaren kide izan zen. Urteetako historial kriminala josi ostean, antolakundea utzi zuen, eta publiko egin zuen haurrak erabiltzen zituztela ekintza kriminaletarako. Orain, kazetaria da nazioarteko zenbait gatazkatan, baina ez jaioterrian; mehatxatuta dago eta ezin da Israelera itzuli. Berlindik erantzun die ARGIAren galderei.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE



KARLOS ZURUTUZA

Lehenik eta behin, zein da zure egoera momentu honetan? Israelera bueltatu zaitezke ala mehatxatuta zaude?

2009an utzi nuen antolakundea, eta orduan hasi nintzen bisitari taldeekin espedizioak egiten: Israelen eta inguruko herrialdeetan egiten nituen. Urteak behar izan nituen bizitza berregiteko eta erreputazioa berreskuratzeko, ez baineukan hezkuntza ofizialtik, eta nerabezaroa Poliziarekin iskanbilatan pasatu bainuen. Lan handia egin behar izan nuen nire ametsa bete eta espedizio buru eta kazetari bihurtzeko. Ez nituen irabazi guztiak kazetaritzatik ateratzen, ez baita dirua irabazteko oso era ona; jendeak kazetaritza egiten du horretan sinesten duelako. Baina orain ezin ditut horrelako txangoak antolatu, ez dudalako esaten uneoro non nagoen. Izan ere, badakit eskuin muturreko jendeak nahi

duela espedizio bat harrapatu eta nirekin duten arazoa “konpondu”.

Eskuin muturrak mehatxatu nauenez, ez dut esaten non nagoen, ez daukat bizileku finko bat, baditudalako arrazoiak sinesteko nire bila etortzen saiatuko direla. Nire aurkako kanpainak egin dituzte, nire erreputazioa suntsitzeko asmoz, eta eskuin muturreko aktibistei ulertzeraz emateko zer egin behar duten ni ikusten banaute. Itamar Ben Gvir berak nire aurkako zenbait kanpaina jarri ditu martxan, gobernuaren immunitatea baliatuta, eta esan du talde anti-semitikoek ordaindutako aktibista bat naizela eta milioika euro irabazten ditudala horrela: gainera, dio nire kazetaritza iturriei ordaindu egiten diedala istorio faltsuak kontatu ditzaten. Beraien ametsik gaiztoena naiz, beraien ekintzak argitara ekartzen jarraitzen dudalako, eta ni suntsitzeko ahaleginetan ari dira.

Nolatan sartu zinen horrelako antolakunde batean?

Bizitzako gorabeherak eraman ninduten Israelgo eskuin muturreko komunitaterik muturreneko batean haztera, Kach antolakunde terroristarekin estuki lotuta zegoena. Bitxikeria gisa: AEBek egun berean izendatu zituzten talde terrorista mugimendu hau eta ETA, 1997an.

Beste askoren kasuan ez bezala, nik ez nuen erabaki horretara sartzea, gartzetatik adoktrinatu eta manipulatu ninduten, nire egoeran erraza baitzen hori. Amona, errefuxiatu izandakoa, ez zegoen pozik ni ama ezkongabe baten semea izatearekin, eta Kahane rabinoarekin hitz egin zezan eskatu zion amari. Rabino hura, ordea, Kach mugimenduari buruzagietako bat zen, eta, beste buruzagi batzuekin batera, aukera paregabea ikusi zuten hor. Nire ama manipulatu zuten: ni adopzioan emateko eskatu



ILAN MIZRAHI

Gilad Sade (eskuinetik lehena) bere aitaordearen eta Baruj Goldstein mediku juduaren erretratuaren artean dago. Mediku horrek 29 palestinar hil zituen.

zioten, uste zutelako ez ninduela erlijioan heziko. Horrela bukatu genuen komunitate horretan, amak ez bainiduen abandonatu.

Etiket jaso zenuen, baina ez zintuzten beraietako bat bezala tratatzen, ezta?

Ez. Beraiek uste zuten nirekin nahi zutena egin zezaketela ama ezkongabe baten semea izanik. Ez ninduten gizaki gisa tratatzen, beraientzat tresna bat nintzen. Gogoan dut Ben Givrrrek nahi zuela nazioarteko komunitatearen aurkako ekintza bat egin eta NBEko base batean sarrarazi ninduela. Ez zitzaion axola ekintza horretan bizia galtzen banuen. Garai hartan uste nuen erdi palestinarra nintzela, eta esaten zidaten beraiek barrik ezingo nuela ganorazko bizitza izan. Horregatik zen erraza beraientzat nik horrelako gauzak egitea; uste dute palestinarrek ez direla gizakiak, erdi gizaki bezala dira, eta ni hori nintzen. Baina baita judutarra ere, eta hori zen gizaki gorena izatea. Orduan, nik uste nuen erdia baino ez nintzela.

Oso zaila izan zen hori bizitzea. Poliziarekin istiluak zeudenean ni nintzen lehena, ekintzak egin behar zirenean (pintaketak edo palestinarren autoak apurtzea) hantxe nengoen ni beti, erakutsi nahi nien beraiek bestekoa nintzela, ez zitzaidan axola arriskua. Ben Givrrrek ematen zizkigun aginduak, berak ez zuen inoiz ezer egiten, gu bidaltzen gintuen. 14 urte nituenean, nire lagunik onenak hil ziren Jerusalem izandako bonba eraso batean.

Nola hartu zenuen antolakundea uzteko erabakia?

Neure burua gorrotatzen hazi eta gero, 20 urte inguru izango nituen antolakundea utzi eta beraiegangandik urruntzeko indarra batu nuenean. Zaila da uste izatea erdi gizaki goren eta erdi azpigizaki zarela, gatazka hori barruan sentitzen nuen. Antolakundea utzi eta gero, konturatu nintzen manipulatu egin nindutela, ez naizela erdi palestinarra, istorio hori jendeak asmatu zuela antolakunderako kanpaina bat egiteko, dirua lortzeko. Orduan ulertu

nuen beren boterea erabili zutela nire ama isilarazteko eta istorio hori argitara ez ateratzeko.

Baina, azkenean, neure buruari beste bide bat aurkitu nion. Nire bizitza asko aldatu da, asko bidaiatu dut; baina, era berean, oraindik ere nire aurka ari dira. Zer egin dezaket nik? Ezin dut nire herrira itzuli, eta benetan maite dut.

Nolakoa izan zen antolakundea uzteko prozesua?

Lehen erasoen helburua niri gizatasuna kentzea zen, batzuetan baita eraso fisiko saiakerak ere; esaten zidaten ez nuela ezer balio, eta niri buruzko gezurrak zabaldu zituzten. Esaten zidaten ez nuela aukerarik bizitza normala izateko. Eta uste dut horretarako arrazoiak zituztela. Lehenik eta behin, beraietako askok nigan ikusten zuten mugimenduko etorkizuneko buruzagia. Ez dut harrotasunez esaten, eta damutzen naiz egindako guztiaz, baina jende askok ninduen gustuko. Adibidez, kartzelan nengonean, kanpoaldean protestak egiten zituzten ni animatzeko.

Beraz, denbora luzez aritu ziren niri sinetsarazten ez nuela ezer balio antolakundetik kanpora. Eta, era batean, horri ere egin behar izan nion aurre: ez neukan hezkuntza ofizialik, 13 urte bete nituenerako kartzelan nengoen, historial arrazista eta kriminal luzearekin, kalean borrokan. Gainera, antolakundetik kanpoko gizarteak ez ninduen onartzen, nire iraganagatik. Ez zen erraza izan beraieganarik kanpora bidea egitea. Eta beraientzat ere ez zen erraza ni handik joatea, bazezkitelako informazio ugari nuela beraiei buruz eta hori ezagutarazi nezakeela.

Era berean, antolakundea utzi nahi zuten pertsonentzako aterpe bihurtu nintzen. Gertatzen zen jendea bere lagunekin niri buruz txarto berbetan aritzea, baina gero gauez niri deitzea eta esatea bizimodu hori utzi nahi zutela eta ez zekitela nola. Esaten zidaten ez zutela nahi ni bihurtu.

Noiz eman zenuen saltoa zure istorioa publiko egiteko?

Antolakundea utzi eta denbora batera illan Mizrahir dokumental egileari idatzi nion, nire bizitza berregiteko laguntza eskatzeko. Lagun egin ginen eta proposatu nion nire prozesuari buruzko film bat sortzea. Nire asmoa zen antolakundea uzten duten gazteek egin beharreko bide gogorra ikusaraztea. Horretarako, eskuin muturreko ekintza batera joan zen Mizrahi, eta bertan eman zuten nire txikitako bideo bat. 1990 inguruan grabatu zuten bideo hori, dirua lortzeko, nik 3 urte nituen han eta antolakundearen buruzagia zen rabinoaren besoetan agertzen nintzen. Berak zioen palestinarren herrixka batetik erreskatatu nindutela. Hortik aurrera, hasi nintzen ikertzen bideo horren nondik norakoak, eta film bat egiten bukatu zuen Mizrahi, Best Unkept Secret izenekoa. Filma estreinatzearekin batera, nire aurkako kanpaina bat abiatu zuten, eta Israel utzi behar izan nuen, ez bainintzen seguru sentitzen. Beldur ziren jende gehiagok berba egingo zuela, eta kide ohien aurka hasi ziren, publikoki berba egin ez zezaten.

Inongoa ez izateak ardaztu du zure bizitza. Kurdu judutarren familia batetik zatoz, eta eskuin muturreko familia israeldar batean hezi zintuzten. Amaren familia Irakeko Kurdistanetik heldu zen. Nire Kurdistaneko familiak herrialdea utzi behar izan zuen, Irakeko Gobernuako kideak etorri zitzaizkien etxera eta handik alde egin behar zutela esan zieten; hori ala hil egingo zituzten.

“”

*Ben Givrek
nazioarteko
komunitatearen
aurkako ekintza bat
egin nahi zuenez,
NBEko base batean
sarrarazi ninduen*

Israelgo errefuxiatu kanpalekuetan ibili ziren, leku batean finkatu ziren arte. Eskuin muturraren manipulazioen ondorioz, beldurra nuen amari nire aitaren inguruan galdetzeko, baina onartu nuenean erdi palestinarra izatea ez dela txarra, amari galdetu nion eta berak esan zidan ez dela palestinarra; alegia, urte askoan esandako gezurrak ziren, eta neronek ere sinetsi nituen. Aita 2019an ezagutu nuen, eta oraindik harremanetan gaude.

Antolakundea uztearekin batera hasi zinen istorioak kontatzen, kazetaritza eta espedizioak prestatzen. Zergatik?

Espedizioak egitearen arrazoia zen istorio bat kontatu nezakeela, eta hori da egin nahi dudana; txikitatik hori izan da nire ametsa. Orain, argazkilaria naiz, baina baita irrati esataria; multimedia kazetaria, oro har. Istorio konplexuak nahi ditut kontatu, kontatu ez direnak. Israeldar aldizkarietan, esaterako, Euskal Herriari buruz dagoen informazio bakarra da jatekoari edo ETari buruzkoa. Ez dute berba egiten kulturari edo herrialdearen konplexutasunari buruz, eta hori da ez dutelako eremua ezagutzen. Hedabideak horren bila ari dira, ez dute nahi kontatu benetan zer gertatzen den. Ni kazetari lanetan ari naiz istorioak idazteko ezagutzen ditugunetatik harago. Nire webgunean diot: “Hemen nago helmuga ezezagun eta ahaztuen, abenturen eta jende ikaragarriaren istorioak jasotzeko”.

Europar zaude egun, nola ikusten da bertan Israelgo egoera?

Uste dut Europar ikuspegi bikoitza dutela munduko gatazken inguruan ari garenean, eta Israel eta Palestinako gatazkaren inguruan oso irudi okerra dago; eta normala da, *fake new* ugari dago horren inguruan. Hammasek edo Kachek ez dute gizartearen gehiengoa ordezkatzen: muturrekoak dira, eta terroristak, hauteskundeetan beren planak ezkutatzeko badituzte ere. Kachen, esaterako, askok ez dute sinesten Israelen, Judean sinesten dute, erresuman, baina ez dute publikoki esaten. Orokorkeriekin hitz egiten da gatazkaren inguruan, eta hori Euskal Herrian ere gertatu da: oso zabalduta dago euskal herritarrek terroristak direla, baina gehienak indarkeriaren aurka daude. Errazena da jendea horrela markatzea. Baina, ez, israeldar eta palestinar gehienak ez dira fundamentalistak.

Horretaz gain, askotan esaten dute Israel lurralde okupatua dela eta ez daukala existitzeko eskubiderik, baina hori dioenak ez daki ezer historiaz. Israelgo eta Palestinako buruzagiek lan asko daukate egiteko bi herriei justizia banatzeko. Gazako egoera ez da ona eta hori konpondu behar da; baina gatazkaren errua soilik Israeli botatzea ez dago ondo. Beste herrialde askotan bezala, Israelen badago zer aldatu, eta behar dugu konponbide bat gatazkarentzat; izan ere, nahi edo nahi ez, denok bizi gara hemen. Errealitatea onartzen dugunean konponbidetik hurbilago egongo gara. Erlji Joan oinarritutako estatuen kontu hori oso antzinakoa da.

Askotan esan duzu Israel tranpa bat dela, ez soilik palestinarrentzat, baizik eta ezberdin pentsatzen duen edonorentzat ere.

Egungo gobernuak, fundamentalista eta eskuin muturreko jendez beteak, Israel korapilo arriskutsu bihurtu du palestinarrentzat eta ezberdin pentsatu dezakeen edonorentzat. Netanyahu esan berri du guardia zibil moduko bat sortuko dutela Ben Givren agindupean, armak izango dituzten hogeitaz bizi. Hori ikusten dudanean ulertzen dut eskuin muturraren izango dela, armak eta boterea izango dituztela edonoren aurka erabiltzeko. Egoera horrela, herrialdea arriskutsu bihurtzen ari da beraiekin bat ez datorren edonorentzat, baina ez dut uste herrialdea bere horretan horrelakoa denik; espero dut gobernu hau boteretik kentzea ahal bezain pronto. ●



Masajistak baino gehiago, morroiak izaten gara askotan

Joseba Elgezabal,
UAE txirrindulari taldeko masajista

Tadej Pogacar non, han izaten da Joseba Elgezabal. Izar esloveniarraren masaje-emailea da, baina ez hori bakarrik: maletazain eta aholkulari lana ere egiten dio askorentzat munduko ziklistarik onena denari. Oso gertutik zaintzen du, garai batean gautxoriekin egiten zuen legez, atezain aritu baitzen dantzalekuetan. Gozatu egiten du masajeak emanaz; aldiz, ez dio inbidiarik ematen ziklisten bizimoduak. Ardenetako Hirukoa hasi baino apur bat lehenago elkarriketatu genuen Elgezabal; tamalez, Liège-Bastogne-Liège klasikoan erori eta eskumuturrean bi haustura sufritu zituen Pogacarrek.

 EÑAUT AGIRREBENGOA

Lanean, munduari bira ematen diozu.

Hala da. Aurten egutegi arinagoa dut: txandaka ariko naiz, astebete kanpoan, astebete etxean. Urtarriletik urrira, batez beste 220 egun inguru igarotzen ditut kanpoan. Egun asko dira. Ume txiki bat dut, eta aurten gogorragoa izango da etxetik kanpo ibiltzea. Dena den, nire burua ez dut estudio batean ikusten. Dudan lana ikaragarri gustatzen zait.

Ez da nolanahikoa: munduko txirrindularitza talderik onenetako batean zabilta.

Caja Ruralen hasi nuen bidea masajista profesional gisa, eta sekulako eskola izan zen niretzat. Bidea eginez joan naiz, mailarik gorenera iristeko. Momentu txarrak ditudanean, burua altxatzeak asko laguntzen dit. "Joseba, begira non eta norekin ari zaren lanean", esaten dut

nire artean. Hemen egoteko egin beharreko guztiak merezi du.

Hasieratik garbi izan zenuen txirrindularitzaren munduan aritu nahi zenuela?

Umetatik oso presente izan dut bizikleta. Aita txirrindularitza zale amorratua izan da. Marino Lejarreta zuen idolo-tzat. Kutsatu egin zidan zaletasuna, eta



JOSEBA ELGEZABALEK UTZIAK

Lasterketak bukatu bezain pronto, han agertzen da Elgezabal, motxila handi bat bizkarrean, eta jan-edanak prest. Ezkerreko irudian Tadej Pogacar du alboan, Frantziako Tourreko maillot horia soinean. Eskuinekoan, esloveniarrak Flandriako Tourra irabazi ostean, pozarren agertzen da masajista.

bost urterekin txirrindularitza eskolan hasi nintzen. Amateur mailara arte iraun nuen. Bitxia da, baina begitan hartu nuen bizikleta. Nekatuta eta nazkatu samar bukatu nuen. Atezain moduan lan egiten hasi nintzen dantzaleketan, eta zazpi-zortzi urtez aritu nintzen. Bizikletaz erabat ahaztu nintzen.

Eta nolaz erabaki zenuen atezain lana utzi eta masaje emaille izateko ikasten hasia?

Pixkanaka ziklismoarekin konektatzen hasi nintzen berriro. Bizikletan ibiltzeari eta lasterketak ikusteari ekin nion. Profesionalki aukeraren bat izan nezakeela pentsatu nuen, eta Bilbon kirol-masajeari loturiko ikasketak egiten hasi nintzen. 2005 eta 2007 artean izan zen. Gero, Seguros Bilbao taldean aritzeko aukera eman zidan Xabier Artetxek.

Futbolearen ere egin zenuen proba.

Seguros Bilbao taldean bi urtez aritu nintzen. Ondoren, Athleticeko harrobian zebilen lagun batek han proba egiteko aholkatu zidan. Gauzak zer diren, atezain izan nintzen garaian ezagutu nuen lagun hura. Lezaman hiru urte eman nituen, oso esperientzia aberasgarria izan zen.

Zenbaterainoko garrantzia du masajeak kirolean? Zer onura dakar? Funtsezkoa da, bai fisikoki, baita mental-

ki ere. Txirrindulariaren atsedena askoz hobe da bi orduraz ohatilari etzanda eta hizketan egon ondoren. Giharrak erlaxatu egiten dira, korapiloak askatu eta odola mugitu egiten duzulako. Baina masajearen onura hortik harago doa. Eragin handia du ziklisten aldarrean. Errutina bat bihurtzen da haien zati, eta falta bada, berehala igartzen dute.

Inbidiarik ematen dizu txirrindulariaren bizimoduak?

Ez. Oso-oso gogorra da. Elikadura zaindu, etxekoengandik urrun egon, gogor entrenatu, presioa kudeatu... Hori guztia jasateko prest egon behar duzu. Taldeko txirrindulariak ondo ikusten ditut. Presio psikologikoari eusteko gai ez direnek ez dute luzaro irauten.

Masaje emailleak psikologo ere bihurtzen zarete batzuetan?

Hori mito bat dela uste dut. Lehen hala izan zitekeen, baina orain, mugikorrek tarteko, barrua askatuta iristen dira masajera. Tadejek, adibidez, masajearen gozatu egin nahi izaten du: musika pixka bat, elkarriketa atsegina... Txokolate pixka bat, alegia. Psikologo lana, inork egitekotan, haren ingurukoek egiten dute, familiak-eta. Batzuetan izaten ditugu elkarriketa sakonak, batez ere lasterketen aurretik. Erlaxatuago egoten da. Behin lehian hasita, ordea, arreta guztia hor jartzen du.



Musika zuk hautatzen duzu, edo ziklistek?

Ziklistek. Pogacarri rapa gustatzen zaio, baita 1980ko hamarkadako rocka ere. Besteek reggaettoa entzun ohi dute.

Ziklistaren nortasuna eta lasterketaren nolakotasuna aintzat hartu beharreko aldagaiak al dira?

Ziklista nolakoa den, masajea giro batean edo bestean ematen da. Tadej, adibidez, oso hitzuna da, eta musika entzutea gustatzen zaio. Horrez gain, emaitzek eragin handia dute txirrindulariaren aldarrean, eta hori ere kontuan hartu behar dugu. Baina masajea, bere horretan, ez da aldatzen. Berdin dio etapa laua ala menditsua izan. Orduetegiak baldintzatzen gaitu gehien. Tourrean, adibidez, nahiko berandu iritsi ohi gara hotelera, eta presaka ari-tu behar dugu.

Txirrindulariaren giharrak ukitzea hutsa aski zaizu bakoitza zer sasoitan dagoen jakiteko?

Pogacarrekin bost urte daramat lanean, eta horixe gertatzen zait. Badakit noiz dagoen indartsu eta noiz ez. Ezin dit gezurrik esan: lehen momentutik dakit nola dagoen. Tarte batez lehiatu gabe egon bada, berehala nabaritzen diot. Gero, giharrak asko sendotzen zaizkio etapak kateatu ahala.

Aldi berean iritsi zineten UAE taldera, 2019an, eta hezur eta mami bihurtu zarete geroztik.

Bere itzal bihurtu naiz, berak hala eskatzen duelako. Bikote ia perfektua osatzen dugu. Oso ondo konpontzen gara elkarrekin. Tentsio handia izaten da lasterketaren ostean, eta helmugara iristen denean, arreta handiz jokatu behar dut. Ezin da hutsik egin. Itxurak garrantzi handia du txirrindularitzan, eta keinu bakoitza neurtu behar da. Bere gustuko janaria eta edaria ere prest izaten ditut. Beste zeregin batzuk ere baditut: arropak garbitu, maletez arduratu... Masajistak baino gehiago, morroiak izaten gara askotan; txirrindularien atzetik gabiltza beti. Nik ondo daramat, oso estimatua sentitzen bainaiz talde barruan.

Bestelakoan, nolakoa da Pogacar bezalako izar handi batekin lan egitea? Oso erraza. Bere errutina eta ohiturei neurria hartzen diezunean, dena nahieran ateratzen da. Pribilegio handia da. Hemen jarraitzea eta ahalik eta Tour gehien irabaztea dut helburu.

Nolakoa da Pogacar aurrez aurreko harremanean? Kanpotik ikusita, mutil atsegina dirudi.

Tipo normal bat da. Ez du izartxo bat bezala jokatzeko, bat gehiago da taldean. Aldatu da, egia da. Garaipenak, ospea, dirua... Ez du erraza izan behar hori guztia kudeatzeak. Mundu guztia zure oinetan daukazu, eta burua behar den tokian eduki ezean, itxuraldatu egin zaitezke. Familiak eta managerrak asko laguntzen diote Tadeji, baina nik ere. Gaztea da, eta batzuetan harrotu egiten da. Halakoe-tan, oinak lurtean izaten laguntzen diot. "Hau ez da mundu erreala, burbuila bat baino ez da, mundua beste aldean dago", esan ohi diot.

Eta jaramon egiten dizu?

Bai. Ni kontrapuntu bezala hartzen nau. Denek olatua egiten diote, baina ni ez naiz halakoa: gustatzen ez zaidan zerbait ikustean esan egiten diot. Adibidez, Paris-Nizan kamerari irribarre egin zion Vingegaard atzean utzi aurretik. Horrelakorik ez egiteko esan nion. "Agian ez nuen egin behar", aitortu zidan.

Doan tokira doala, irabazi egiten du ia beti. Non du muga?

Batek daki. Beste maila batean dago. Fisikoki onena da, baina garbi daukat: aldea buruak egiten du. Kolpe gogorra



ENAUT AGIRREBENGOA

“ ”

Batzuetan harrotu egiten da Pogacar, eta hor nago ni, oinak lurtean izan ditzan. Hau burbuila bat besterik ez dela esaten diot

hartu zuen iaz Tourrean; bada, lurretik altxatu, eta lasterketak irabazteari berrekin zion berehala. Nik lasai ikusi nuen Tourra galtzean, baina barrenean saminduta zegoen. Orain, askoz arriskutsuagoa eta indartsuagoa da, fisikoki nahiz mentalki. Nire ustez, hanka sartu zuela sentitzen du, eta ematen dizkiogun aholkuei kasu gehiago egiten die.

Bere lorpenetatik zer ehuneko dagokizu zuri?

Gutxi,%5-edo.

Oso gazterik loratu da. Ibilbide laburrakoa izatea ekar dezake horrek? Ziurrenik bai. Ez dut Tadej 35 urterekin lehiatzen ikusten. Ez litzateke ariko di-

rua irabazte hutsagatik. Berari bizitzaz disfrutatzea eta irabaztea gustatzen zaio. Bizikleta oso maila altuan utziko du.

Zenbat urtean eutsi diezaioke orain duen mailari?

Ez dakit. Beste lauzpabost urtez? Lesioak, erorikoak eta eritasunak ere kontuan hartu behar dira, eta ea mentalki zenbat urtez ibil daitekeen hainbesteko presioarekin.

Eta zer egin dezake beste lau edo bost urte horietan?

Dena irabazi. Baina jomuga Tourra da. Dena eman eta kentzen dizu. Monumentuak [bost klasiko nagusiak] ere oso erronka polita dira.

Euskal Herrian jokatuko dira aurtengo Tourreko lehen hiru etapak. Ea Pogacarrek toki onen uzten zaituen etxekoan aurrean...

Horretaz hizketan aritu ginen iazko Tourrean. "Etxetik 1 zenbakidun dortsalarekin atera nahi dut", esan nion. Tamalez, ez da posible izango, ezin izan zuelako irabazi. Baina oso egun politak izango dira, dudarik gabe. Hemengo ibilbideak asko gustatzen zaizkio, eta beti du atsegina Euskal Herrira etortzea. Paisaiak, jendearen izaera... Esloveniaren antzekoa dela iruditzen zaio. ●

INOZOAK



JOSEBE BLANCO
@HAUSNARREAN



ARABAKO MENDIAK ASKE

Nork ez du, behin ere, inozo jo-
katu? Konfiantzaz aritu nahi,
eta parekoak adarra jo. Des-
esperazioak aginduta, fedea
izan behar, eta aurrean miraririk ez.
Inozotasunak ez du mugarik, eta ba-
serrira ere heldu zen aspaldi.

Inozoak izan ginen jektzeko ma-
kinak eta robotak bizitza erraztuko
zigutela sinetsi genuenean. Eskuz
jektzeari utzitakoan zetorren ustezko
duintasunak dena hartu zuen. Inork
entzun nahi ez teknologia horrek ze-
kartzan gastuek ezkututzen zituzten
lanan oihartzuna. Eta horrela egin ge-
nuen maila bat gora.

Inozoak, lurrik gabeko baratzea-
ren alde egin genuenean. Lurra talaia-
tik ikusteak ematen duen botereak
liluratuta, ezin ikusi negutegiak bero-
tzeko energia garesti ordainduko ge-
nuela eta barazkientzako jana urru-
tiko laborategietatik etorriko zela.
Handik aurrera, eskuak beti garbi.

Inozoak, halaber, enpresariak gi-
nela sinetsi genuenean. Baserritarak
ez, gu enpresariak. Horrekin beste-
lako inportantzia jantzi ginen, eta
gustu handiz onartu genituen traje
berriak sortutako estuasunak. Halaxe,
supermerkatuetan saltzeak eta gure
jakiak esportatzeak *gourmet* bilakatu
gintuen, eta ahaztu genituen azokara
asteroko erosketa egitera joaten ziren
herrikideak. Ttak, koska bat gorago.

Akaso, onenean, konturatu gara
animaliak ez ditugula bueltan, aspal-
dian utzi geniola eskuetan lurra sen-

titzeari eta azoketako giroa faltan
dugula. Egoera sozioekonomikoak
bultzatuta, agian, hasi gara eskaile-
ran behera, mailak jaisten, lurrera-
tzeraino, traje hura erantzita.

Badira, halere, gu -eta zu- inozo-
tzat hartzen jarraitzekotan direnak.
Esaterako, maiatzean *Food 4 Future*
izeneko kongresuan etorkizuneko
elikaduraz arituko dira, besteen ar-
tean, hainbat multinazionalak
ordezkariak. Antza, teknologiak, ro-
botikak eta automatizazioak elika-
tuko gaituzte. Diotenez, elikadura
osasungarria eta ekoizpen jasanga-
rriaren alde ari dira, eta klima alda-
ketaren kontrako borrokan, sutsu.

Honaino helduta, zer esan, ira-
kurle? Bada, txundituta naukatela
munduak eta naturak mugarik ez
dutela oraindik ere pentsatzen du-
ten horiek. Txundituta, uste dutenak
teknologiak emango digula jaten, eta
ez lurra eta baserritarren eskuek.

Gauzak horrela, bokaziozko ino-
zo gehiegi dagoela esango nuke.
Badaezpada, gaitzetik libratzeko, bi
hitzordu:

Hilaren 16an, herrikideak pertso-
nek -eta ez makinek- elikatu behar
dituztela sinesten dutenekin, BEC
aurrean.

Hilaren 20an, natura eta landa-
eremuak bizirik -eta ez industrial-
izatuta- nahi dituztenekin, Gasteizen.

Etorkizunean, mundua bizirik eta
sano -bere adiera guztietan- nahi
dudalako. ●

EUSKAL HERRIKO
AGENDA

www.bizibaratzea.eus

MAIATZAK 9 / GATIKA

Jakoba Errekondoren
hitzaldi-kontsultategia,
III. Elkartrukaketa Azokan.

MAIATZAK 10 / ARAMAIO

Garbiñe Larreak gibel garbiketari buruzko
3 orduko saioa emango du.

MAIATZAK 17 / LEITZA

Garbiñe Larreak sei sendabelar aurkeztuko
ditu. **19:30ean**

EKAINAK 1 / BEASAIN

Garbiñe Larreak sei sendabelar aurkeztuko
ditu eta "Milagritos" ukenduaz arituko da.
19:00ean Igartza Jauregian.

Garbiñe Larrea eta Jakoba Errekondoren
hitzaldia antolatu nahi baduzu idatzi:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus

AZABURUAK ETA AZA BURUTSUAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Erleak zorioneko dabilta. Erleak, geratzen diren bakanak. Izan ere, gure asmo zitaleko intsektizida, pestizida, herbizida eta antzeko pozoiak barra-barra erabiltzen jarraitzen dugun artean, gure ospitaleak muku betetzen ditugun bezalaxe daude erleenak ere. Geratzen diren bakan horiek, hala ere, zorioneko dabilta.

Zorioneko oraintxe loraldi betean baitaude lehen Kruziferoak eta egun Brassicaceae deitzen den familiako landareak. Horietako batzuen izen geure-geurea beste bat da: aza jendea (*Brassica spp.*). Hainbeste landu ditugu, hainbeste jan dugu haiengandik, hainbeste jan-tzi gara haiekin, hainbestetako jaki izan dugu, hainbestearinoko jaki-ntza izan dugu... Neurri handi, oso handi batean gure jakintza eta kultura azari zor diogu. Eta osasunerako ez da jaki hoberik, eta gustatu zaigu, eta lantzen ikasi dugu.

Azak lantzeak milaka urtetan eta milaka tokitan aza jendea zabaldu eta hedatzea ekarri du. Aza erein, aza landatu, aza zaindu eta aza jan, eta ale batzuk hazitarako utzi; ale horiek bere garaian gara abiatu edo garatu, pirukatu, tontortu, zildu, zakildu, kukulatu, kukuildu, morronkatu, morrondu, goiti joan, hozitu, buztandu, gogortu, burutu, loretu, ernamuindu, ernatu, zoztu, galdurratu edo gailurtuko dira, muturrean lore sorta ederra zabaldu eta ernaldutakoan leka tankerako silikua-tan hazi biribil-biribilak emateko. Garatu eta loratze hori da une garrantzitsua, bai erlantzako, baita azentzako ere. Horixe gertatzen da polinizazioa eta aberastasun genetikoaren trukaketa. Arra eta emea nahastea; erlea dela medio arrak eta emeak jokatu dute; erleak agian jolasu, bi loreek jokatu. Eta haziak sortuko dira, aza-haziak. Baina zer nahasketa izan da hazi hori munduratu duena? Zein lore arraiotan ibili zen erlea polen putzuan zilipurdika? Eta zein beste loretara etorri da aldajoka jarraitzeko, beste haren



COYAU, WIKIPEDIA COMMONS

polena utziz? Bi lore horien genetikaren nahasketa izango da hazi berritik letorkeenak. Eta urtero horrela, urteak etorri, urteak joan, milaka urtetan.

Eta horrelaxe sortu dira aza amon leinu batetik, basaza edo aza basa (*Brassica oleracea*), egun dugun aza jende aukera zabal. Batzuek lorea indartu dute: azalorea (*Brassica oleracea* var. *botrytis*), brokolia (*Brassica oleracea* var. *italica*) eta erromaneskua (*Brassica oleracea* convar. *botrytis* var. *botrytis*). Beste batzuek hostoaren sena sustatu dute: gailego aza edo zuhain aza (*Brassica oleracea* var. *acephala*) edo kalea (*Brassica oleracea* var. *sabellica* eta var. *palmifolia*). Aza muskarraren alboetako begiak haziz hedatu da Brusela aza (*Brassica oleracea* var. *gemmifera*). Txorrenaren edo trontzoaren zentzuari eutsi diote errefau-azak (*Brassica oleracea* var. *gongylodes*) eta makilatarako azak edo aza hostokakoak (*Brassica oleracea* var. *longata*). Eta azken muturreko begia edo kimua lehenetsi zutenetatik eratorriak ditugu buru aza (*Brassica oleracea* var. *capitata* f. *alba*), aza gorria (*Brassica oleracea* var. *capitata* f. *rubra*), aza zorrotza (*Brassica oleracea* var. *capitata* f. *acuta*) eta aza kizkurra (*Brassica oleracea* var. *sabauda*). Azken horiek denak dira aza-kobak edo aza buruak. Aza burutsuak. Eta guk iraingarri erabiltzen ditugu aza hosto, azaburu... Ustez burutsuok. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Zein egunetan inausi ditzaket intxaurrondoak? (Alberto)

Intxaurrondoak oso toki lehorrean bizi ez badira, Euskal Herriko Hego-hegoan adibidez, ez inaustea hobe da. Inausketak sortzen dizkien zaurietatik gaitzak sortzen dituzten onddoak sartuko dira; hezetasuna handia den tokietan gehiago, bere zaleak baitira onddoak.

Hala ere inausketa egin nahi baduzu oso berandu da, dagoenerako izerdia mugitua baino erabat indarrean dabil. Onena hurrengo urteko martxoaren hasierarako utzea litzateke. Aurten egitez gero maiatzaren 2 egun osoa eta 3 goiza, ilbehera eta sustrai egunak.

Bidali zure galdera:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus

AURREKO BARAZKIAK PANDEMIAK LAGUNDUTA, BASERRIRA BUELTA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Gasteizen bizi zen Egoitz Aurrekoetxea Bilbao koronabirusaren pandemiak mundua astindu zuenean. Enpresa batean ari zen garai hartan lanean, baina egoera berriak zer pentsatua eman zion eta Natxituko familiako baserrira joateko ideia bueltak hasi zitzaion: “Gure bizitzan aldaketa bat behar genuela sumatzen genuen, eta baserrian lursailak genituenez, horiek aprobetxatu eta horretatik bizitzea bururatu zitzaigun”. Pentsatu eta egin: ordu arteko lana eta bizitokia utzi, eta Natxituko Sabarri baserrian ari da geroztik nekazari. Pandemiak jendarte hobe ekarri zuenik ezin esan, baina badirudi, behintzat, zenbait erabaki interesgarriak hartzeko bulkada eman ziela.

BARAZKI OTARRAK

Etterako ortuarekin hasi ziren pandemia garaian esperimentatzen Aurrekoetxea eta familia, eta emaitza onak lortzen ari zirela ikusirik, pauso bat gehiago eman eta barazki otarrak egiteari ekin zioten. “Negutegia jarri genuen, eta hor eta kan-

poan ekoizten ditugu barazkiak”. Momentuz, hamar bezero inguruk astero hartzen diote otarra, baina ekoizlearen asmoa da pixkanaka ekoizpena handitzea eta jende gehiagorengana iristea: “Pentsatua dugun ekoizpenaren herenarekin hasi gara, datorren urtean bigarren herenari ekinen diogu, eta hirugarrenean, espero dugu pentsatutako hori guztia martxan izatea”.

6.000 metro koadro inguruko lursaila du baserriak, eta ekologikoan ari da Aurrekoetxea: “Trantsizio betean dago lursaila orain, hemendik bi urtetara, gauzak ondo badoaz, zigilu ekologikoarekin ariko naiz”, azaldu du. Bitartean, formazio eta ikastaroak jasotzen ari da nekazaria, eta barazkiak saltzeko modu berriak ere ari da probatzen. Adibidez, garbitutako letxuga nahasketak poltsetan saltzen hasi da, zuzenean entsaladan jateko moduan jarrita.

NEKAZARITZA BIOINTENTSIBOA ETA BIRSORTZAILEA

Bi ekoizteko eredu horiek jarraitzen

ditu nekazari bizkaitarrak: “Nekazaritza biointentsiboan, beti dago produktoren bat lurrean, bat kentzen dudanean beste bat jartzen dut segidan, errotazio bidez eta barazki familia desberdinekin lan eginez. Lurra beti produktuak ematen egotea da ideia”. Nekazaritza birsortzaileak ere laboreen errotazioa eta konpostaren erabilera ditu oinarri: “Errotazioaren eta konpostaren bidez, lurreko mikroorganismoak eta estruktura zaintzea da asmoa, nutrienteak hobetzen joatea”. Esaterako, rotabatorrik ez du pasatzen ekoizleak, lurreko mikroorganismo horiek ez kaltetzearren.

Proiektu gaztea izanagatik ere, ari da pixkanaka egonkortzen Aurreko Barazkiak, pausoz pauso eta gauzak presarik gabe eginez. Orain arteko ibilbidearekin eta hartutako erabakiekin pozik dago nekazaria, eta aurrera begira, ekoizpena handitzen doan heinean, otarrez gain hurbileko azoketan eta baserrian bertan salmenta egitea da bere asmoa. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Gozatu
udaberria

Zatoz eta aurkitu zure
balkoia, terraza edo
baratzerako landare eta
produktu guztiak

Online denda ➡



COMMON VOICE PROIEKTUA

Mugikorrari ere hitz egin euskaraz

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA



WIKIPEDIA CC BY-SA

Ez natorkizu XXI. mendeko komunikazio/ez komunikazioaren inguruko diskurtsorik ematera, irakurle. Ez dizudalako ez dakizunik kontatuko. Informazioa lortzeko tresnarik aurreratuenak eskueran ditugun garaiotan desinformazioa nagusi dela ez baita ezer berria. Aitortuko dizuet, oraindik behintzat ez naizela iritsi Siri-ri txiste txar batzuk kontatzeko eskatzetik harago; baina geroz eta ohikoa goa bilakatu da, hatzik mugitu gabe, gure mugikorrari kontsultak ahotsez egitea.

Baina behin aparatuari galdetzen hasita, inportantea da jakitea nori eskatzen diogun informazioa, zein hizkuntzatan egiten dugun, nor dagoen ematen dizkiguten erantzunen atzean, nork entzuten gaituen... Aipatu dut Apple Siri, baina badira Amazon Alexa, Google Assistant edo Microsoft Cortana ere, besteren artean. Denak jabetun softwarea. Alegia, erabiltzaileok ezin dugu jakin gure ahots grabazioekin gailuan zer egiten den eta

ez daukagu zerbitzarian gertatzen denaren inongo kontrolirik.

Egoeraren aurrean, Mozilla Fundazioak, Firefox nabigatzaile librearen garatzaileak, beste balio batzuetan oinarritutako ahots ezagutza teknologiak sortzeko apustua egin zuen, Common Voice proiektua garatuz.

Besteek etekin ekonomikoari begira ahots laguntzaileak munduko hizkuntza nagusietara mugatzen dituzten bitartean, Common Voice-n helburua da ahalik eta hizkuntza gehienetan erabilgarri egotea. Eta besteek historikoki tresna horiek entrenatzeko ahots gehienak klase ertaineko gizon zurienak erabili dituzten bitartean, Common Voice-n ahots guztiak hartu nahi dira kontuan. Gainera, pribatutasunari emango diote lehentasuna eta emaitza libre izango da, edo nork erabiltzeko moduan.

GURE PARTE-HARTZEA

ARGIAk eta Iametzak proiektu honetan hartu dute parte. Bi lan nagusi daude

honen guztiaren atzean: 5-10 hitz arteko esaldi laburren bilduma erraldoia osatzea, eta hauek irakurri, grabatu eta balioztatzea. ARGIAk esaldi bilduma hori osatzeko bere artxibo historikotik ia 4.000 esaldiko bilduma jarri zuen domeinu publikoan –eta gehiago jartzeko konpromisoa du-. Iametzak, bere aldetik, auzolan digitalean parte hartu zuen bi grabazio maratoi antolatuz.

DATU OROKORRAK

Une honetan 110 hizkuntzatan ari dira grabazioak egiten eta euskararen kasuan 151 ordu grabatu eta balioztatu dira orain arte, 1.261 boluntarioren lanari esker.

Teknologiarekin ahoz komunikatzea lortzeko, euskaraz, libre eta modu etiko batean, ARGIAren komunitateko kideei gonbita egitea besterik ez zaigu geratzen: <https://commonvoice.mozilla.org/eu/> webgunera joan eta esaldiak grabatu edo balioztatu. ●




DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Kroniken balio literarioa, plazara

ARGIAk eta Koldo Izagirrek apirilaren 26an aurkeztu dute *Zaldi bat ihes garrezko zelaian* liburua, euskal prentsak 1869 eta 2000 urteen artean ekarritako zenbait kronika gogoangarri biltzen dituena. Izagirrek egin du testuen hautaketa, eta Gorka Bereziartuak liburuaren hitzaurrea idatzi du. Izagirrek nabarmendu du kronika "genero hibrido" dela eta "kazetaritzaren alderdi literarioa" erakusten duten lanak direla. Irudian, ezker-eskuin, Olatz Korta ARGIAko kidea, Izagirre eta Bereziartua, Donostiako Udal Liburutegiko aretoan, aurkezpen ekitaldian. Liburua salgai dago Azoka.argia.eus webgunean. ●

Erromatar dodekaedroa eta detektoristak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Erromatar Inperioa, K.o. II. eta III. mendea. Erromatarrek dodekaedroak egin eta erabili zituzten, hamabi pentagonoz osatutako metalezko objektu txikiak, hainbat tamainako zuhoak dituztenak.

Ez dakigu zertarako erabiltzen zituzten dodekaedroak; testuetan ez da haien aipamenik egiten, baina ez dakigu erromatarrek nola esaten zieten, dodekaedro izena bere formak eman baitio berriki. Hainbat hipotesi egin dituzte adituek: eskularruak josteko gailuak zirela, argimutil modura edo hodiak kalibratzeko erabiltzen zituztela, objektu apaingarri hutsak zirela... 2012an Turingo Unibertsitateko ikerlari Amelia Carolina Sparavignak beste teoria bat argitaratu zuen: dodekaedroak distantzia neurtzeko erabiltzen zituztela. Dodekaedro gehienak inperioaren kanpoaldeko mugetan aurkitu dituzte, egungo Galesen, Hungarian, Belgikan... eta bereziki Frantzia eta Alemanian. Sparavignaren arabera, neurgailuak beharrezkoagoak ziren lurralde berrietan ingeniariaritzaren obrak egiteko eta kartografiatzeko, metropolian baino.

Baina Sparavignarena edo beste hipotesiren bat egiaztatzea oso zaila izango da. Dodekaedroak dituzten museoetara joaz ikusten da pieza gehienek jatorria ez dela batere argia. Herrialdeaz edo eskualdeaz harago, gutxitan zehazten da non aurkitu dituzten, datazio zehatzak ere urriak dira eta bildumagile pribatuen bidez iritsi ohi dira museoetara. Hau da, dodekaedroak ez dituzte indusketaren arkeologikoetan aurkitu, detektoristek baizik.

ARKEOLOGOAK EDO ESPOLIATZAILEAK?

Metal detektagailuak erabiliz “galdutako objektuak aurkitzen” dituztenei deritze detektorista. Definizio hori zuzena izan daiteke, esaterako, hondartzetan jendeak galdu berri dituen objektuen bila dabilzantzat. Baina beren burua arkeologia zaleztat duten asko detektorista espoliatzai-



ARTOKOLORO

leak dira. Ez dituzte objektuak aurkitzen, bilatu egiten dituzte. Eta objektu horiek ez zeuden galduta, bere testuinguruan gordeta zeuden, informazio baliagarri inguratuta, eta testuinguru horretatik erauzita, betiko galtzen dute benetako balioa; pieza horien balio arkeologiko eta historikoa askoz handiagoa da, detektoristek jasotzen duten ordain materiala baino.

Metal-detektagailuak geroz eta eskuragarriago daudenez, eta azken aldian zenbait detektoristek sare sozialetan “aurkikuntzak” nola egiten eta monetizatzen dituzten harro erakusten dutenez, gaitza hedatzen ari da. Duela hilabete, Mexikoko *El Universal* egunkariak argitaratu zuen jardura han ere bizkor zabalitzen ari dela, Europatik doazen turista espoliatzaileen nahiz bertako detektorista berrien eskutik.

Mexikon bezala, ia Europa osoan gune natural, arkeologiko eta historikoetan de-

tektagailuak erabiltzea legez debekatuta dago, ñabardurak ñabardura. Baina maiz guneen izendatze ofizialek luze jotzen dute eta, horrez gain, aztarnategi asko toki baktuetan daudenez, ezinezkoa da horiek uneoro zaintzea. Esaterako, iaz Araban eta Burgosen jarduten zuten bi detektoristari ehun bat objektu atzeman zizkieten; horietatik dozena bat antzinako txanponak ziren, eta beste dozena inguru, testuingururik gabe ziurrenik aztertu eta identifikatu ezingo diren pieza historikoen zatiak.


Arkeologoen ustez, legeak lege, gakoa heziketan dago: balio historikoa duten objektuak ez dira bilatu behar, eta ohar-kabeen aurkituz gero, ez dira ukitu edo mugitu behar, eta erakundeei jakinarazi behar zaie.

Pentsa zer gertatuko litzatekeen Irulegiko eskua detektoristek “aurkitu” izan balute. Eta pentsa zenbat dodekaedro eta zenbat esku galtzen ari diren betiko. ●



LIBURUA

Mitoen itzalean



AVOIR ALIRE

**AZTARNA
FALTSUAK**
BRUNO DUHAMEL
HARRIET, 2022

JON TORNER ZABALA

Gustukoen ditudan komigileez galdetzen didatenean ez dakit zer erantzun. Ez dut autore fetitxerik. Penagarria da arrazoa: gehienetan, komiki –edo nobela– bat irakurri eta denbora gutxira ahaztu egiten zait egilea nor den, berretsi ahal izan dudana moduan *Aztarna Faltsuak*-ekin, testu hau idazteko bigarrenaz irakurtzen hasi naitzen. “Ea, norena zen? Bruno Duhamel. Izena ezaguna zait ba, eta ilustrazio hauek, lehenago ikusiak ditut antzekoak, kolore-gama zabal hau, ilunabarrak argitutako Arroila Handiaren ikuspegi panoramiko eder hauek...”. Wikipedian irakurri dut Harriet argitaletxeak –nork bestela!– autore frantziarraren hainbat komiki dituela euskarara ekarriak –Miel Angel Elustondok itzuliak–, eta jabetu naiz horietako bat etxean dudala gor-


deta: *Itzulera*, Lanzarote izan zitekeen uhartea bolkaniko batean kokatua.

Aztarna faltsuak western modernoak Frank Paterson du protagonista. Hamabost urtez AEBetako mendebaleko ikuskizun batean Johnson marshallaren rola jokatu du, baina lana serioegi hartzen bukatu: turista baten aurrean bere arma ateratu zuen eta orain langabezian dago. Lankide ohiek, agur-opari moduan, bidaia antolatua ordaindu diote Mendebalde Zaharreko eszenatoki ikonikoetara. Talde koloretsua du bidaide, zeina Duhamel baliatzen duen jo-puntuak jartzeko masa turismoa, armekiko atrakzioa, arraza- eta sexu- aurrejuzguak, erreserbetako indiarren patua, pertsonaia historikoak mito bilakatzeko tendentzia... Autobusak lehen geldialdia egitearekin bat hautsiko da haien arteko armonia, marine ohi bati

zuzendutako iruzkin zirtolari eta gainerakoen ezezagutza agerian utziko duten Franken azalpen historiko zehatzengatik. Pertsonaien izaerak aitzakia paregabea lirateke istorio umoretsua marrazteko, baina Duhamel beste bide batetik jo du, nahiz eta komiki osoa zipriztintzen duen ukitu satirikoak irri txikiak eragingo dituzten irakurleengan. Ez dakigu *Aztarna faltsuak* western generoari omenaldia ote den, ala desmitifikazioa. Biak, ziurrenik.

Zer den mitoa eta zer errealitatea, zer benetan gertatua eta zer aztarna faltsua, etengabe egiten du horrekin jolas komigile frantziarrak, Franken barne-bidaia ardatz izanik, zeinak norabide susmagaitza hartuko duen, indiar batek eskura zituen substantzia aluzinagarrien efektupean.

Gustukoen ditudan komigileez galdetzen, badakit orain zer erantzun. ●



MUSIKA

Ozeanoa Oñatira heldu da



IKER BARANDIARAN

Dagoeneko badira urte dezente Sharon Stoner eta Zingira taldeetako Iñigo Ibarrondori adarra jotzen niola esanez oñatiarrek Araotzen edo Sandailin nonbait aurkitzen zutela AE-Betako usaina eta inspirazioa. Bada, iturri hori nabarmen areagotuz doa aspaldian, eta zer esanik ez honako diskoa esku artean hartuta.

Deskubritu berri dut taldea Oñatiko laukoteak haien herriko Gaztelekuan aspaldiko partez egin duen zuzenekoan eta zur eta lur utzi naute: kantuek, presentziak, soinuak, dotoreziak... Guztia erabat zainduta, eta gainera egiazkoa. Abesti bizienetan Thin Lizzyren irmotasuna soinean, eta lasaia goetan Dylan elektrikoaren tenpoa!

Erruaren zati handi bat Juan Vallsena da, ozeano bestaldeko musika kulturaren erabat jantzia, gai dena hango esentzia ekarri eta bere kontakizun bisualekin ederto janzteko eta bere egiteko. Gaztea bada ere, luzaroan dihardu kantuak idazten eta interpretatzen Euskal Herrian, Eskozian... ahal duen lekuan; eta pandemia aurretik geltoki finko ez baina norabide zehatza duen proiektu hau jarri zuen martxan. Zenbait partaide al daketa, pandemia eta bestelako medio, *Pill for horses* da haien lana, eta honakoa luxuzko formazioa: Ander Etxaniz baxuan (Lenao), Mikel Marco baterian (Herstura), Iñigo Ugarte gitarra (Malenkonia, Unnea, Lenao, Iker Mtnes & Zaldi Herrenak) eta Juan Valls ahots eta gita-



PILLS FOR HORSES

RAMADA INN

AUTOEKOIZPENA, 2022

rran. Diskoan, gainera, Alvaro Turrionek (Supersweet, Lie Detectors) teklatuak gehitu ditu. Garate estudioan grabatu dute Iñaki Zubiarekin, eta Jonan Ordozikak Mamia estudioan masterizatu du.

Diskoa osatzen duten zortzi abestiak beste lurralde eta garai batera bidaiak dira, dotoreak eta ñabarduraz beteak. Valls-ek ingelesez abesteko duen dikzio sinesgarri eta Dylan-en antzeko "sudur-ahotsaz" lagunduta kontakizunak musika kultura amerikarraren erreferentziaz josita daude, eta haien jantziak badira Tom Petty, The Van, Dylan, Neil Young eta enparauen jostun parekoenak, oñatiarren ekarpen finekin; batzuk xuxurlatuak, beste batzuk gitarreroagoak, baladak, country zein erdi-tenpoekin. ●



Bosgarren aireratzea

INÍGO BASAGUREN-DUARTE

Musikari buruz hitz egitea gustuko zuten bi lagunek sortu zuten *Uhin* aldizkaria, berba guzti horiek paperea eramateko. Bada, aldizkariak bere bosgarren alea kaleratu berri du eta non eta Bilboko Espora Espazioan aurkeztu. Horrela izan behar zuen, espazio berezi batean, bazterreko proposamenei leku ematen diena. Sortzaileek, Antton Iturbe eta Yeray Portillok, euren burua lurretik aldentzen den espaziontzia bezala ikusten baitute, industria musikaletik gero eta urrunago dagoen espaziontziaren modura.

Bosgarren ale honetarako uzta ederra bildu eta edukien artean gauza interesgarri asko aurkituko ditugu, hala nola, elkarriketa mamitsuak, hausnarketa sakonak eta gai jakin bati buruzko sintesi entziklopedikoak. Mikel Vegak Alex Reviriego inprobisatzaile musikaria elkarriketatu du, eta Antton Iturbek, bestalde, Discret Music zigiluaren sortzeileak. Tes-tuak soilik ez, Eider Iturriaga eta Sandra

Cuestaren irudietaz gozatzeko aukera ere izango baitute aldizkaria eskuratzen dutenek. Bi argazkilariek testu ederrekin lagundu dituzte beraien begiek klikatu-takoa. Enrike Hurtadok musikaren munduak eta haren barruko adierazpenek bizi duten paralisi egoera du aztergai bere testuan, *revival*-en eta nostalgiaren garaian musikak harritzeko duen gaitasuna galdu duen edo ez hausnartuz. Carlos G. de Marcosek literaturako *cut-up* eta musikako *sanpling* teknikak aurrez aurre jarri ditu idatzi duen testuan.

Aldizkarian argitaratu den beste testuetako bat Mark Leckey artistari buruzkoa da. Hori aitzakia bezala hartuta, eta ikusleei mokau goxo bat eskaintzeko helburuarekin, antolatzaileek Leckeyren ibilbidean mugarri izan zen *Fiorucci made me hardcore* (Mark Leckey, 1999) bideo artelana eskaini zuten. Hamabost minutuko pieza honetan artista ingelesak bere ibilbidean berezkoak izango dituen oinarriak ezarri zituen. Horre-

'UHING' ALDIZKARIAREN AURKEZPENA

NOIZ: apirilaren 15ean

NON: Bilboko Espora Espazioan



la, artxiboko irudiak erabiliz, bere biografia pertsonala kontatzea bilatzen du, baita Ingalaterrako langile klasearen historia kontatzea ere, pertsonaala eta kolektiboa, mikroa eta makroa uztartuta. Lanean dantzarako musikak bere eta gazteen bizitzan izandako garrantzia aldarrikatu nahi du, langile klaseak dantzaren bitartez bere burua nola aldarrikatu duen eta bere gaitzak nola exorizatu dituen erakutsita, 1970eko hamarkadako Northern Soul-etik, 1990eko hamarkadako *rave* musikaraino.

Bideoak eta azalpenek eztabaidarako bidea hauspotu zuten Espora Espazioan. Jendeak ikusitakoarekin gozatu eta hausnartu zuen, baita gogotsu ideiak elkar trukatu ere. Musikaren eta irudien indarrak errelatoak sortzeko duten ideia gailendu zen. Zentzu horretan, *Uhin* bezalako argitalpenek, eta gurean dauden beste guztiek duten garrantzia aldarrikatu zen, kulturaren bidezidorretan mugitzen direnen esanen bozgorailu baitira. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA GARBIÑE BIURRUNEK, EAEKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN ARETO SOZIALEKO PRESIDENTEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		6		7	9			
2	9			6	4		1	
4	5	3			1		6	
9		2		5		1	3	8
5	6				8		4	7
8	3					5		6
	4	5		8	2		9	
		8	9	1		3		
				4	3	2	8	5

ERRAZA


2						4	7	
9			2					
	3	5	8					
		2			5			4
4		3				5		6
5				6		2		
8					1		3	
		1			4	7		5
6				3		8		

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Ulertu. 2. Egunak.
3. Erabat lasterka. 4. Tentel, motel.
5. Ezetza adierazi



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				N	O	T	S	U
2	B				K	A	T	U
3	J	A				D	I	A
4	M	E	T				K	O
5	E	R	A	M				E
6	A	N	I	M	A			

EBAZPENAK

1	8	6	3	7	9	4	5	2
2	9	7	5	6	4	8	1	3
3	4	5	7	1	9	3	6	8
4	7	3	1	2	8	5	4	6
5	8	9	4	6	3	2	7	1
6	2	1	8	5	7	4	9	3
7	5	3	6	9	1	8	2	4
8	1	4	2	3	8	6	5	7
9	6	8	9	1	5	3	7	4

ERRAZA

1	6	3	5	9	4	7	8
2	1	8	2	1	7	6	5
3	4	8	1	7	2	5	3
4	7	3	1	2	8	5	6
5	8	9	4	6	3	2	1
6	2	1	8	5	7	4	9
7	5	3	6	9	1	8	2
8	1	4	2	3	8	6	5
9	6	8	9	1	5	3	7

ZAILA

PUZLEA: "EUSKAL OASIAREN IRUDIA POLITIKOKI ASKO ERABILITZAN DA ETA IRUDIPEN BAT ZEN SOLIK. IRUDI FALTSUA, ASMO POLITIKO GARBI BATEKIN ZABALDUTAKO IRUDIA."

5XS: 1. ADITU, 2. DATAK, 3. ITOKA, 4. TAKET, 5. UKATU.

HIZKI BERAK: 1. LAINOTSU, 2. BILAKATU, 3. JAIALDIA, 4. METALIKO, 5. ERAMAILA, 6. ANIMALIA.

Laura Gurbindo

NATUROPATA



LANDAREEN BUELTAN

“Txikitatik erabiltzen genituen landareak etxean, eta hazten joan naizen heinean gehiago ikasteko grina izan dut. Gaztetatik zenbait heriotza bizi izan ditut gertutik, gaixotasun asko egon direlako nire inguruan; modu batean, osasunaren gaiak beti eragin dit. Horregatik hasi nintzen senideekin ikasten, eta gero ikastaroak egiten. Gainera, txikitari landare batek bizitza salbatu zidan kukutxeztularenegatik hilzorian nengoen. Medikuek ez zuen aterabiderik ikusten. Zorionez, orain, horri esker matraka ematen ari naiz”.

“Landareen erabileraren inguruko kultura sortzen ari da”

Jaio zenetik landareekin harreman estua izan du Laura Gurbindo naturopatak (Iruñea, 1962). Familiari esker ezagutu ditu sendabelarrak, eta horiei esker bizi da, literalki, baina horiei esker bizi da haien inguruan eratu baitu ofizioa. Sendabelarrak identifikatzeko eta erabilera ezagutzeko ikastaroak ematen ditu. Tentuz ibiltzeko gomendioa eman du, hainbat sendabelar toxikoak direlako. Horrez gain, medikuntza naturala geroz eta gehiago erabiltzen dela uste du: “Kontsultara doan jende askok botikez gain landareak hartzen dituztenez, medikuek geroz eta gehiago jakin nahi dute landareen inguruan”.

 OLAIA L. GARAIALDE  JOSU SANTESTEBAN

Sendabelarrak loratzen ari dira orain, udaberrian. Nora jo beharko genuke?

Ezagutza garatzeko edozein leku da ona. Nafarroan ekosistema asko ditugu kilometro gutxitan, eta 200 espezie baino gehiago aurki ditza-kegu. Hortaz, ikusi, ezagutu eta aukeratzeko nahi adina dago, baina sendabelarrak jasotzeko leku garbiak aurkitzea beste kontu bat da. Errepideetatik urrun, fumigatu gabeko zelaietan, poligono industrialetatik aldentuta eta hirietatik kanpo dauden lekuetara joan beharko genuke. Bestela, beste aukera da labore ekologikoa egitea.

Labore ekologikoa egiten duzu?

Ez, nik ez. Sendabelar gutxi behar izaten ditudanez, landare basatiak jasotzen ditut.

Aditua zara sendabelarretan, irakaslea ere bai. Espezieak identifikatzeko ibilaldiak egiten dituzu. Nolakoak dira?
Eguraldi ona egiten badu landare

bila goaz. Zonaldea garbia bada eta garbi aurkitzen badugu, sendabelarrak hartu daitezke erabiltzeko; bestela, ezagutza garatu eta herbarioan jartzeko hartu daitezke. Propietateak, erabilerak, kontraindikazioak eta dosifikazioa ere azaltzen ditut.

Sendabelarrek osasuna kaltetu ere egin dezakete?

Pozoitzeko asmoa baduzu, horretara bazoaz, pozoitu zaitezke; baina ez da perretxikoekin bezain erraza. Perretxikoen kasuan, jendeak esku-
ra duena hartu ohi du, liburuan kontsultarik egin gabe. Badago jendea nahita intoxicatu nahi duena, eta beste batzuk nahi gabe egiten dute.

Nahita diozu, drogatzen saiatzen direlako?

Bai, eta zoritxarrez ondorio larriak izan ditu horrek. Askok kartzelan edo psikiatrikoetan amaitu dute. Zorionez, ordea, gero eta jende gehiago dago erabilera egokia egin nahi duena.



“Gure amonek sendabelarrak erabiltzen zituzten, baina hurrengo bi belaunaldiek hori galdu dute. Gaur egun galdutakoa berreskuratzen ari gara”.

Hortaz, desinformazioak erabilera txarra eragin dezake?

Bai, baina desinformazioa sistemaren arazo bat da. Landare bat ez badago erregistratuta saltzen duzunean, ezin diozu prospektua gehitu, ezin duzu azaltu zenbat erabili behar den, eta zerekin nahastu daitekeen eta zerekin ez. Oso sendabelar gutxi daude erregistratuta, oso garestia da, eta dirua daukaten laborategi handiek ez dute interes handirik. Ikertuta badago, jakin dezakezu ea landare jakin bat hartu daitekeen botika kimiko bat hartzen ari bazara. Alderantziz ere gertatzen da: batzuetan ona da zenbait belar hartzea botika batzuen toxikoak kanporatzeko.

Botika naturalak eta kimikoak uztartu beharra dago?

Bai, biei tiraka jarraitu behar dugu. Landareekin ez dugu nahi beste lortzen, asko ikasi behar dugulako oraindik, baina botikek ere ez dituzte beharrak erabat asetzen. Esaterako, urtero kentzen dituzte botika batzuk ondorio kaltegarriak dituztelako; agian, biak uztartuta, lortu daiteke emaitza optimoago bat.

Osasun arloko langileen partetik sendabelarreko interesa dagoela uste duzu?

Kontsultara doan jende askok, gaur egun, botikez gain landareak hartzen ditu, eta horregatik medikuek geroz eta gehiago jakin nahi dute landareen inguruan. Medikuek landareak ere gomendatzen dituzte; lehen esaten zen medikuak landareen kontra zeudela, baina hori aspaldiko kontua da.

Naturopatia zer den azaltzeko beharra sentitzen duzu?

Gutxiago azaldu eta gehiago sentitu behar da. Ez da hainbeste arreta jarri behar medikuntza naturalaren esanahian, baizik eta jendea gehiago hurbildu behar dugu naturara, bere burua ezagutzeko eta erritmoa berreskuratzeko.

Zer nolako ibilbide historikoa izan dute sendabelarrek?

Lehen ez zegoen beste gauzarik, jendea herrietan bizi zen eta landareak gertu zituen. Baina, orain, jendea hirian bizi da eta pare bat belaunaldik

landareekiko harremana galdu dute. Gure amonek sendabelarrak erabiltzen zituzten, baina hurrengo bi belaunaldiek hori galdu dute. Gaur egun galdutako hori berreskuratzen ari gara, baina asko falta zaigu ikasteko eta ikertzeko. Ezagutzen ez ditugun landare asko daude.

Erabilera ere handitzen ari da?

Jendea duela 30 urte baino irekiagoa da. Lehen infusio gutxi batzuk zeuden tabernetan; menda, kamamila eta gutxi gehiago. Orain, dozena bat infusio daude. Horrek esan nahi du landareen erabileraren inguruko kultura sortzen ari dela. Batez ere emakumeon artean, infusioak hartzen ditugun %90 inguru emakumeak garelako.

Landareen inguruko jakintza zabaldu dutenak emakumeak izan dira?

Bai, urte luzez emakumeak izan direlako zaintzaz arduratu direnak. Gizonak poliki-poliki zaintzaren banaketan sartzen ari dira, kostata. Gizartea aldatu den arren, gehiago aldatu behar da. ●

Nire babes osoa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Pasa behar izan dira mendeak, pasa behar izan dira goseak, pasa behar izan dira gerra txiki, ertain eta handiak, pasa behar izan zuen Rubikonetik Julio Zesarren zaldia; pasa dira, gero, gurdiak; pasa dira bizikletak; pasa dira trenak; pasa dira autoak, kamioiak, motoak; pasa dira hankabikoak eta herrenak, argalak eta gizenak; gizonak, emakumeak, zernahiak; pasa dira, ezin konta ahala, tristurak, beldurrak, penak. Pasa eta pasa eta pasa, bizitzen ari garen momentu historiko honetaraino iritsi ahal izateko.

Historikoa, bai. Aurreko garai eta zibilizazio guztiek eduki duten problema handi bati azkenik soluzioa aurkitu diolako, antza denez, gureak: azkenik badakigu nola jokatu ondokoa izorratuta ikusten dugunean, hurkoaren moralak erreka jo duenean, estimatzen duzun pertsona hori ataka estuan dagoenean, trantze latzetik igarotzen, tragoa iturri garratzetik edaten. Orain badakigu nola lagundu, nondik hasi bestearen pairamena arintzen; ez dago aitzakiarik, badakigu zer egin buztin gogor horrekin, lehortu eta metraila zatia bezala barruan gera dakion baino lehen.

Azkenik, badakigu: "Nire babes osoa" esan behar zaio. Eta dena konponduta.

Hori bai, gauzak ondo egin behar dira, ezin da babes osoa edozein modutan barreiatu ere: mezua digitalki transmititu behar da, zuzenean marroian dagoen pertsonari, baina ahal dela jende gehiagok ere ikusi ahalko duen plataformaren batean.

Aldaerak onartzen ditu, adibidez "fuah" eranstea hasieran –gazteek batez ere–; edo "eutsi!" jartzea amaieran –militantzia politiko erradikalen bat dutenek usatuko dute gehien aukera hori–. Baina eranskin horiek gorabehera, inportanteena formularen bizkarrezurrari



eustea da. Nire. Babes. Osoa. Besteen problema ororentzat konponbidea, azkenik, gizateriaren esku.

Eta formula baliotsu hori destilatzea lortu dugunez, nik uste dut pixkanaka traste zaharren gelan bukatuko dutela gure inguruko sufrikarioei aurre egiteko erabili izan diren beste gauza guztiek. Kontraturik gabe esklabista baten menpe ordu pila lanean ari den lagunak ozen egingo du aldarri: "Utikan sindikatuak!". Zer da konbenio ziztrin bat, izan ere, zure babes osoa daukala jakinda? Ama hil ondoren alkoholismo depresiboan erori den adiskideak ere ez du arreta psikologikorik beharko gehiago: babes osoa dauka orain. Zurea, gainera: babes osoen artean babes osoena.

Amonak dutxan irrist egin duela eta jarri dioten benda-festarekin orain Tutankamona daukazuela? Utzi alde batera ospitaleko bisita zaharkitu horiek, bidali zure babes osoa, efizienteagoa da askoz. Eraso homofoboaren aurrean: nire babes

osoa. Aldaketa klimatikoaren kontra: nire babes osoa. Bizilagunaren etxeak su hartzen duenerako eta kuadrillakoari autoko gorpila lehertzen zaionerako: nire babes osoa. Pixka bat entrenatuz gero, zure babes osoa azkarrago aterako duzu fundatik Clint Eastwoodek bere pistola baino.

Irakurri boz goran: "Nire babes osoa". Zoragarria da nola betetzen duen ahoa azken karieseraino. Formula hori aurkitu dugunetik, mundua leku askoz hobea da edo, bueno, nola esan, babestuagoa behintzat –osoki babestua, izan ere–. Solidario izatea inoiz baino erraz eta merkeagoa bihurtu du gainera, Babesaren Banku Zentralak ez baitauka kreditumugarik: gaur kausa batean babes osoa gastatu arren, bihar beste edozein kausatan inbertitzeko prest daukazu zure babes osoa berriz. Horrek pentsarazten dit babes osoaren kontu honek ez duela funtzionatzen kapitalismoaren logikaren arabera. Haizeak ere ez; eta hala jotzen du, segun eta nondik. ●



Liburu berria

Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

ARGIAAn salgai

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri (1869-2000)

Kronika hauetan aurkituko ditugu atzerriak eta aberriak, gerrak eta kartzelak, elurak eta itsaso zakarrak, bidaiak eta erromeriak...

Nekez irakur zitezkeen lekuetatik atera eta liburuan bildu ditu Koldo Izagirrek.





ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO
AZOKA

ZIBURUKO 4. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 3AN
PILOTA PLAZAN



ANTOLATZAILAK



PARTAIDEAK



ZIBURU
BOURE

